

elkar

UDAZKENA 2020

61. ZENBAKIA

www.elkar.eus



MIKEL SOTO

Suak pizten direnean, biografia politikoa poema-liburu

KEN FOLLETT

Las tinieblas y el alba, el surgimiento de Kingsbridge

IZEN PROPIOAK:

Uxue Alberdi • Luis Garde • Elsa Punset • Asel Luzarraga • Iñaki Egaña • Eneko Aizpurua •
Txusma Perez Azaceta • Anjel Lertxundi • Inazio Mujika • Xabier eta Martin Etxeberria •
Xabier Amuriza • Maddi Ane Txoperena • Irati Jimenez • Antton Olariaga • Exprai



8435226181165

ZAZPI HIRIBURUAK

IRUÑEA

Kike Diez de Ultzurrun Sagüla
Marrazkiz: Iratxe + Dima



Baiona

Bea Salaberri
Marrazkiz: Iratxe + Dima



Gasteiz

Potei Zubizarreta
Marrazkiz: Iratxe + Dima



Bilbo

Luisa Egia
Marrazkiz: Iratxe + Dima



DONOSTIA

Nerea Azumendi
Marrazkiz: Iratxe + Dima



MAULE LEXTARRE

Ailande Socarros + Jean Luis Davant
Marrazkiz: Iratxe + Dima



DONIBANE GARAZI

Nora Alberbide Lete
Marrazkiz: Iratxe + Dima



EZAGUTU
EUSKAL HIRIBURUAK

elkar_Hizkuntzak
www.elkarhizkuntzak.eus



EXPRAI



Kultura sarean

Jarrai gaitzazu gure sare sozialetan

@elkar

flickr elkartaldea

@elkar

f elkarTaldea

postdata.elkar.eus

ekar www.elkar.eus

ekar
liburu-
dendak

ALGORTA (GETXO)

Tellexe 11
94 491 66 16

ARRASATE

Erdikokale 14
943 79 78 29

BAIONA

Arsenal plaza
559 59 35 14

BASAURI

Dr. Jose Garai 11
94 426 13 84

BERGARA

Ibargarai 7
943 76 40 50

BILBO

Licenciado Poza 14
94 443 47 08

Iparragirre 26

94 424 02 28

Zamudioko
ataria Zazpikale
94 416 14 50

DONOSTIA

Fermin Calbeton 21
943 42 00 80

Bergara 6
943 42 63 50

GASTEIZ

San Prudencio 7
945 14 45 01

Apraiztarak 1
Campus
945 14 16 70

HERNANI

Kale Nagusia 30
943 55 15 37

IRUN

Colon pasealekua 8
943 63 17 26

IRUÑEA

Comedias 14
948 22 41 67

Leire 9

948 17 55 38

TOLOSA

Arostegieta z/g
943 67 35 33



LUIS GARDE

Luis Garde idazle nafarrak *Aireportuko musika* argitaratu du, zortzi poesia liburuz osaturiko ibilbidean bigarren eleberria duena; lehenengoak, *Ehiztariaren isilaldiak*, Euskadi Literatura Saria jaso zuen 2016an.



AIREPORTUKO MUSIKA
Luis Garde
PAMIELA

***Aireportuko musika* eleberria etorkizun hurbilean girotu duzu, 2027 urteko Nafarroako politika munduan. Zientzia-fikziotik baino politika-fikziotik gehiago du?**

Horrela esan liteke. Sobera hurbil dugu 2027 urtea zientzia-fikzio hutsa egiteko, nahiz eta, gizartean dakusigun aldaketen abiadura kontuan hartuz, zazpi urte epe luzea izan zer etorriko zaigun aurreikusteko. Nor ausartu daiteke aurreikusteko nolako egoera sozioekonomikoa pairatuko dugun zazpi urte barru? Idazlearen papera, edonola, ez da, nire ustetan, igarlearena egitea. Banuen narrazioa etorkizun hurbilean jartzeko gogo, batzuetan baitirudi literaturak iraganera begiratzen duela, are gehiago, nobela hau kasu, bortizkeria politikoa baldin bada gaitako bat. Saiatu naiz islatzen giroan sumatzen ditudan joera batzuk, etorkizun hurbileko gizartea irudikatzen.

Hitzaurrean Aldo Moro politikari kristau-demokrata italiarraren bahiketa aipatu duzu. Horrek inspiratu al zintuen?

Gazte-gaztea nintzen Aldo Mororen bahiketa gertatu zenean. Bortizkeria politikari dagokionez urte gogorak ziren, telebistan egunero ikusten baikenuen hemengo atentatu berri, kaleetako eta komisariatetako errepresioaz gain. Hala ere, bereziki ukitu ninduen Mororen gorpua agertu zen autoaren zuri beltzeko argazkiak. Moro estatuzona izana zen Italian, gobernuburu, demokrazia kris-



ARGAZKIA: PAMIELA

tauaren fundatzaileetako. Garaian hagitz ahaltsua zen Alderdi Komunista Gobernuan sartu nahi zuen NATOren eta estatubatuarren iritzia kontra, Brigade Rossek bahitu zutelarik. Baziren zurrumurru ilun anitz bahiketaz, gaurdaino argitu ez direnak. Urte anitzez geroago nobela bat idazten hasi nintzelarik, Mororen bahiketaren argazkia bururatu zitzaidan. Hasi-tako nobela utzi eta liburu honi ekin nion.

“Etorkizun hurbileko gizartea irudikatzen, egungo giroan sumatzen ditudan joera batzuk islatzen saiatu naiz”

Nafarroako familia boteretsu bateko emakume politikari eta enpresari bat da bahitua. Zer erronka ekarri dizkizu pertsonaia horrek?

Ez nuen azaldu nahi ez bahitzaileek kartzelaturako gizaki aingerutar bat, irakurleen enpatia edo errukia sortuko zuena, ez gizatar eskuindar eta usteldu bat, merzitate zigorra jasotzen ari zena. Nobela luze baten protagonistak izaera konplexua behar du, narrazioaileak pertsonaiaren berreraiketa egiten du, epailearena egin gabe, sentimentalismoan erori gabe. Ahalik eta pertsona errealea eraiki nahi nuen, haren aurpegi ilunak barne.

Bahituaren bizirauteko irrika, batetik; politikariak estatuaren arrazoiak baliatzen bahitzaileen eskakizunei amore ez emateko, bestetik. Bi mutur horien artean al dago tragedia?

Hor dago tentsio puntu nagusietako bat, dudarik gabe. Bahituak bizirik iraun nahian idazten du; idaztea baita eskura daukan tresna bakarra. Alde batetik, emazteari zuzentzen dizkion testuak, maitasunezkoak gutxi gorabehera; gero, politikari ikeritakoak, bizia salbatzea bilatzen dutenak. Beste muturrean daude estatuaren arrazoiak mugituko politikariak, printzipio oso diferenteak baliatzen dituztenak. Drama sortzen da interes kontrajarri horien arteko tentsio eta borrokatik. Hemen ez da gaiztoen eta onberen arteko lehiarik.

Kontakizun nagusiaren baitan hamaika kontakizun daude. Aldez aurretik planifikatu al zintuen?

Banuen igaro beharreko geltokien ideia bat. Hasierako ideia bahituaren gutunak idaztea izan zen. Batzuk emazteari, bestetaz politikari. Gero pentsatu nuen, ego-kia zitekeen telefono kontrolatuetatik poliziak grabatutako zenbait elkarrizketa sartzea, politikarien arteko jokoa agertzeko. Bahituaren familiaren bilakaeraz aitzeko beharra ere sortu zitzaidan, neurri batean imitatuz garai bateko nobelonek egiten zutena, batzuetan tonu parodiko batekin, finean, familia nafar kazikil batez ari baidakara, bere alde gorrotagarriekin eta bere alde iragarriekin.

Eleberriaren bukaeran Caravaggioren Ama Birjinen heriotza-ren erreproduzio bat dago. Zer dela eta?

Beti hunkitu nuen koadro bat da. Zoragarriak dira Caravaggioren ilun-argiak, koadro horietako aurpegien adierazkortasuna. Ilun-argien aita deitu izan zaio Caravaggiari. Eta horixe besterik ez du egiten idazleak: gizakiaren argi-ilunak aztertu eta margotu. Koadro horretan bereziki dakuskiu norbaiten heriotzaren aitzinean gizakiok hartzen dugun jarrera ezberdinen lagina, kuriositatekin ezin adierazizko saminera doana. Eszena guztia, gainera, antzerki eszena balitz bezala dago antolatuta, ohol eta guzti. Nobelan agertzen da koadro horren iruzkin bat. Elizak arbuatu zuen Caravaggiari enkargaturako lana, bertan agertzen dena ez baita Jainko baten ama, las-ter zerura igoko dena, gurtza merezi duen heroi bat, esan dezagun, baizik eta hildako emakume arrunt bat. Bere begiradak gizatiar bihurtzen du ordura arte jainkotiar izan zena, moralkeari baliatu gabe. Uste dut irakurleak aise aurkituko duela zerekin edo norekin lotu eszena hori.

YURRE UGARTE
Idazlea

MIKEL SOTO

Urtetan Txalapartako editore izan ondotik, bere lehenengo sorkuntza-lana atera du Mikel Sotok (Iruñea, 1978): *Suak pizten direnean*, bere biografia politikoa biltzen duen poema-liburua, pasio eta etorri handiz kontatua.



SUAK PIZTEN DIRENEAN
Mikel Soto
ELKAR



fikatu egin zaizkigu. Jon Alonsorekin hizketan, komentatu genuen gatazka armatuaren amaiera katarsirik gabea izan dela eta berak, beti bezain zorrotz, zera gaineratu zuen: “Katarsirik gabe... bustita egon eta galtzontziloak ezin aldatzea bezalakoa da”. Ondo legoke lehor baleude, baina zaila da. Zorionez, orduan izan genituen amets-tako batzuk ere kronifikatu zaizkigu eta ederra da horiei ere kantatzea.

Borroka politikoan kide izan zirenei eskaini diezu liburua, lagunei. Haiena ere bada kontakizuna?

Liburuan nik bizitakoa dago baina egia da hori baino gehiago kontatzen saiatu naizela. Horregatik utzi nien liburua garai bateko lagunei, jakiteko haiek bizi zutena islatzen zuen eta, batez ere, ikusten edo sentitzen ez zuten zerbait ote zegoen. Irakurri dute, beren burua eta garaia islatuta ikusi dituzte, eta bihotzez poztu nau horrek, garrantzitsua baino gehiago ezinbestekoa zitzaidalako. Une gogorrek maitasun bereziak sortzen dituzte eta horren isla dira eskaintza eta liburua.

Atxagaren poema batetik hartu duzu titulua, zer dela eta?

Īñaki Eizmendi abeslariak kantaturiko poema hori aipatu zidan Edorta Jimenezek. *Poemas & híbridos* eta XX. mendeko poesia kaierak antologietan ez dago jasoa, ez nuen ezagutzen eta izugarri gustatu zitzaidan. “Gure herria andere zabala da / morez jantzitako andere zabala” bertsoekin hasten da. Izugarria da irudi hori; ederra, indartsua eta, niretzat bederen, ikaragarri feminista. Liburuak kontatzen duena laburbiltzeko ezin aproposagoa da eta polita iruditzen zitzaidan poema eder hori era horretan erreskatatzea.

Poema lirikoak idatzi dituzu, baita epikoak eta alegorikoak ere. Zer moduzkoa izan da sormen prozesua?

Ederra, bizigarria, zaila, esperientzia berdingabea. Ez nien idazteko gai izango ote nintzen baina saiatzea erabaki nuen eta, zorionez, nire ustez liburuko poema onenetako batzuk hasiera horretan idatzi nituen eta orduan jakin nuen gai izango nintzela. Beharbada gehien harritu naue-na idatzi ditudan poema “torrencial” xamararak izan dira, baina kontatzen nuenak berak eskatu dit jarrioa, eta hor daude niretzat liburuen poema berezietako batzuk.

Editore izan zinen hainbat urtetan, zer ikasi duzu beste aldean?

Idazteari buruz neuzkan hainbat ideia guztiz zuzenak zirela egiaztatu dut, baina ikasitakoen artean bat aipatzearren, editore, irakurle eta zer esanik ez kritikoek ahazten dugun zerbait: idazteko eta are argitaratzeko ausardia handia behar dela.

OIHANA URIARTE
Kazetaria

Heldutasunaren perspektibarekin, gaztaroko bizipenetatik abiatuta idatzi duzu lehen poesia liburua. Militantzia politiko baten kronika poetikoa?

Zaila zait hainbeste gauza biltzen dituen liburua laburbiltzea. Bizitza politiko baten poesia kronikoa ere izan zitekeen. Era intentsoan bizi genituenok joera dugu garai horietara sarriegi itzultzeko, ez soilik modu nostalgikoan. Urte latzak izan ziren eta esango nuke orduan egin eta bizitakoak nola eraman ez dakigula. Euskaldunok gure sentimenduak elkarri azaltzeko gaitasun urria dugu, edozein motatako terapiari abertsioa diogu eta horrek ezintasun samin bat eragiten digu. Hainbat min kroni-

BLUME

C. 24,5 x 28,5 cm 304 pp. PVP: € 35,00

CS. 19,5 x 23,5 cm 272 pp. PVP: € 24,90

C. 26 x 35 cm 36 pp. PVP: € 16,90

C. 19 x 25 cm 256 pp. PVP: € 29,90

C. 23 x 26 cm 48 pp. PVP: € 12,90

CS. 24,5 x 28,5 cm 240 pp. PVP: € 35,00

www.blume.net

MADDI ANE TXOPERENA
Idazlea



Proposamena

ERRAN EZIN DIRENAK

Hitz egin ezin denaz hitz egitea da heriotzari buruz idaztea. Eta erran ezin hori are handiagoa da heriotza hori bizirik ere egon ez den batena bada: hilda jaio den norbaitena. Eta dolua, berriz, oraindik ere hitz egin ezin duen (edo uzten ez diogun) batena: haur batena, alegia. Maisuki azaltzen du **Oihane Amantegik** ordea horixe bera bere lehen liburuan. Minaren geruzak, doluaren hegiak, hildakoarekin egindako solasak, heriotzarekiko sinesgogortasunak eta munduarengandiko ez ulertzeak, haur baten ikuspegitik. Horixe bera, dena batera, eta zizelkari baten fineziaz.

Ameriketako Estatu Batuetako ibaiertz batean kokatzen du idazleak jaiotzerakoan ahizpa bikia galdu zuen neskatila baten istorioa: "Heriotza bizitzaren atzetik doan bezala agertu nintzen ni lehenengo, bizirik, eta ahizpa gero, hilda". Eta ibaiertz horretako usain eta soinuek girotzen dute ipuin-eleberria: eztiak eta ibaiak, harmonikaren melodiak, dena irensten duen kudzuak, heriotzarekin loturiko pertsonaia eta objektu mitologikoek... Guztia gertaeretan sinplea bezain ideia eta errateko moduetan landua den kontakizun batean. Ameriketako Estatu Batuetako ibaiertz batean kokatua baitago, bai, baina izan

zitekeen edozein ibaiertz ere. Bertze edozein munduko kokaleku. Bertze edozein familia eta giro. Eta bertze edozein galera. Eta horrek berak egiten du, agian, *Ibaiertzeko ipuina* unibertsal eta berezi. Ez dakit azaltzen zaila den lagun baten heriotza denboran eta distantzian hurbil izan dudalako den, baina aspaldian liburu batek hunkitu ez nauen bezala jo dit barrena **Oihane Amantegiren** *Ibaiertzeko ipuinak*, malko askatzaileak isurtzeraino. Sentitu baina maiz erratera ausartzen ez garen horiei forma emateagatik, akaso. Lehen, bigarren eta hirugarren minei ibaian behera egiten laguntzeagatik, harmonikaren doinuan, hasperenez.



IBAIERTZEKO IPUINA
Oihane Amantegi
ELKAR

Profila XALBADOR

XALBADOR, 100 URTE



XABIER AMURIZA
Bertsolari eta idazlea

Bertsolari onak asko izan dira. Oso onak, ez hainbeste. Jenialak, bakanak. Bat, **Xalbador**. Maiz irakurri dut gizon "apala" zela. Ez dakit! *Maite zaituztet orainik?* Txistuen ondoren, hark ezin zuen hori benetan sentitu. Haren urguilu minduak irteera jeniala eman zion egoerari, eta ondorengo saioari.

Batzuek diote **Xalbador** "poeta" zela, haren bertso-maila goratu guran. Beste batzuek, haren maila beheratu guran. Hobe da bera entzun dezagun, final jada mitiko hartako ale harrigarri askotariko batzuetan. Txistuen aurretik: "Biok senar-emaztegai gazteak zarete, baina pobreak izaki, ezin zarete ezkondu". **Xalbador neskak** honela bukatzen du saioa:

*Halere elgar ikus zakegu
guk goxoki bekoz beko
ez izan arren jateko zerbait
eta nahikoa soineko
Diruaren zai gelditzen gera
bera etortzen deneko.
Artean biak arkitzen gera
maitasunaren meneko.*

Elegantzia, indarra, edertasuna. Bakarka:



KUTXATEKA

"Bi bertso irriari". Hona bigarren, txistuen aurreko azkena:

*Irria beti ez daitakela
bihotz barnetikan egin
gogorik balin ez bada ere
hori egin daike berdin.
Nahiz irria gezurra izan
eta berari eman min
bederen beti eginen dautzu
bere inguruan atsegin.*

Zenbat arrazoi, zenbat indar irriaren aurka. Hala ere, "beti inguruan atsegin". Mirakulu bat! Txistuen ondoren, puntu bat:

*Zerraldoan dijoanak 'gero arte' dio:
Zure esanak, Alfontso, jarri nau serio.
Jendea tristatzen da hau dela medio
sortzeak hiltzea du beti ondorio.*

Bakarka: "Zergatik negar egiten dute haurrek, jaiotzean?"

Hirugarren bertsoa:

*Haurtxoa sortu den ordurako
heltzen dio negarrari.
Bera pozetan balin bada're lanbide horri da ari.
Zeren Jainkoak bere jaiotzan
errana dion haurrari
gure mundu hau tristea dela
benetako negargarri.*

Nolako indarra dagoen hor, seguruenik, txistuen eraginez. Eta zenbat halako ale egun hartan, eta bizitza osoan!



IRATI JIMENEZ IDAZLEA

ZORIONEKO *HAPPY ENDING* BATZUK, BUKAERA ZORIONTSU UGARI ETA ONDO BUKATZEN DIREN LIBURU ASKO

BARREN-BARRENEAN

Atal honetan bertan esan dut gaur baino lehen zenbat gustatu zitzaidan **Katixa Agirreren** *Amek ez dute* (Elkar, 2018). Arrazoi asko daude horretarako baina beste guztien gainetik bat aipatu beharko banu bukaera izango litzateke. Abila, azkarra eta elegantea iruditu zitzaidan. Hilketa izugarri bati buruzko *thriller* moduan hasten den eleberririk norabide batean darama irakurlea liburu osoan zehar eta azken orrialdeetan argumentuaren korapiloak soka bakar bati tiratuta askatzen dira, amatasunari eta kreaioari buruzko hausnarketa jenial bat egiteko.

Liburu bat ondo bukatu dela diogunean zer esan nahi dugu? Eta zer da bukaera zoriontsu bat? Azken galdera erantzutea errazagoa da, beharbada. Pertsonaiak pozik geratu direla esan nahi izaten dugu. Baina bukaera garrazak onak izan daitezke, irakurle bezala sentitu dezakegu liburu "behar den moduan" bukatu dela. Zeuk jakingo duzu, irakurle, ze eratako liburuak eta bukaerak dituzun nahiago, gorputza esperantzaz beteta uzten dutenak; mukizapia hartuta baina bihotza sentimenduz puztuta bukatzen dituzunak edo ia beste guztiak, bi horien erdian nonbait kokatzen direnak.

Bada uste duenik bukaera zoriontsuak eskasak direla, berez. Narrazio batek balioa galtzen duela azkenean orrialdeetan zorian apur bat agertzen bada, *happy ending* batek irakurlearen ahoa gozotzen badu. Kritika-aren alorrean sarri asko irakurri daiteke zenbat galtzen duten sinesgarritasunak, kalitateak eta prestijioak zeremonia literarioaren azken partea eguzkipean egiten badugu, esparru iluminatuan, bizirik gauden bitartean posibilitate guztiak bizirik daudela oroitarazten digun lekuan eta geratzen diren orduak edertasunaren promesa dakarten denbora irredimibile horretan. Baina idazleak ez luke inoiz alde zurretik aukera hori baztertu beharko eta kriminala litzateke irakurlearen gustuari dagokion burujabetasunari hain hesi mugatuak jartzea.

Idazleok organikoki pentsatu beharko genuke, narrazioa alde zurretik era batera edo bestera bortxatu gabe. Argumetuak eskatutako bukaera bada, kontakizunaren bilakaerarekin eta pertsonaien izaerarekin bat datorren modu batean gertatu bada eta sinesgarritasuna badu, egin nahi duguna egin dezakegu. Ahal dela, irakurleak asebetetzeko, esperientzia emozionalean inbertitu du-



ILUSTRAZIOA: ANTON OLARIAGA

ten denborak merezi izan dutela sentitzeko. Sortu dugun istorioa da modu sakonean nora joan nahi duen eskatzen diguna eta bukaera ona kontakizunak berak eskatzen duena izango da, ezinbestekoa, harrigarria eta naturala dirudiena.

Ez da erraza izaten. Baina literaturan erabakiak onak izan behar dira, ez errazak. Eta bukaerak epaitzeko errazkeriak aplikatu daitezke, zorionari eta zorigaitzari buruzko aurreiritzietan oinarri dutenak, baina hobe izaten da irizpide hobeak aplikatzea. Irakurle moduan geratu zaigun gorputzaren inpresioak esango digu negargurea dugun edo poza eta inpresio horrek berak daki bukaera ona den edo ez.

Zeu zara, irakurle, **George Orwellen** *1984* (Txalaparta, 2007) jenialaren bukaera terrorifikoa esperimendatutako duena, azalaren zauria zeuk sentituko duzu *Pereirak dienez* (Igela, 2006) amaitzerakoan eta zeuk esperantza **Ray Bradburyren** *Fahrenheit 451* (Txalaparta, 2010) gogoangarrian, **John Steinbecken** *Arratoiak eta saguak* (Alberdania, 2012) zirraragarrian eta inoiz idatzi den bukaerarik boteretsuenetako batean, **Hemingwayren** *Fiesta!* majistrlean. Amaiera zoragarri horrek bizitzaren indar suspergarria sentiarazten dizu, jaiotzen ari den mundu berriaren iragarpen bat dirudi, garuneko begiak irekitzen ditu eta esnatuta egon arren esnatu egiten zaitu. Miresgarria.



ELSA PUNSET

Elsa Punset, licenciada en Filosofía y Letras, máster en Humanidades, Periodismo y Educación Secundaria, llevaba casi tres años trabajando en este libro que en su proyecto inicial ya giraba en torno a los retos que supone vivir en un planeta estresado. La pandemia, sostiene Elsa Punset, ha precipitado e intensificado esta reflexión y la ha convertido en algo mucho menos utópico y aún más urgente. “Así que he facilitado propuestas concretas y prácticas al lector para que pueda profundizar y participar en los grandes cambios, y oportunidades, en los que estamos inmersos”, explica.



FUERTE, LIBRES Y NÓMADAS
Elsa Punset
DESTINO

Frente a quienes se muestran más pesimistas, usted defiende que estamos ante una oportunidad valiosa para reinventarnos. ¿En qué basa su optimismo?

Mírole así: si hubiera podido elegir, ¿en qué época le hubiese gustado nacer? Si la respuesta es, una y otra vez, que elige el siglo XXI... es porque intuitivamente sabemos que estamos viviendo en una época extraordinaria. Nunca hemos tenido las oportunidades, el conocimiento y la tecnología para aprender, convencer y escuchar, para no dejar a nadie atrás, sin ignorar, apartar, despreciar o desconocer.

Hace propuestas concretas para desarrollar, precisamente, el optimismo inteligente. ¿Podría adelantarnos una de esas propuestas?

Los optimistas suelen disfrutar de más éxito, mejores relaciones, menores tasas de depresión, mejores ingresos, mejor salud física y más longevidad que los pesimistas. Así que... ¿cuál es el secreto de los optimistas? ¿Cuáles son los hábitos, los pensamientos y los comportamientos de esas personas?

Todos nacemos con tendencia al optimismo y al pesimismo, pero podemos entrenarla. Un exceso de negatividad nos hace menos inteligentes, porque estamos centrados en protegernos, en vez de centrarnos en salir adelante, en ser creativos, en ayudar, en disfrutar... Cultivar el optimismo y la alegría y la creatividad que tanto necesitamos requiere una decisión consciente. Y sin duda, entrenar los hábitos de optimismo que propongo en *Fuerteres, libres y nómadas* es de enorme ayuda para vivir mejor.

Usted matiza que la distancia social es física, no emocional, porque, de hecho, esta situación “en muchos casos nos está acercando”. ¿Estábamos demasiado encerrados en nosotros mismos?

No, lo contrario. Vivíamos en la sociedad de la distracción, y con la pandemia nos ha sorprendido que se pueda vivir una vida interesante sin tanta variedad de estímulos... Hemos tenido tiempo, creo que por primera vez, para poner en orden prioridades y valores, para dedicar tiempo a nuestras familias, para plantearnos qué nos importa de verdad, cómo queremos que crezcan nuestros hijos... También nos hemos visto cara a cara con nuestra gran fragilidad. La vida es mucho más frágil de lo que pretendíamos. ¿Y qué nos ayuda a superar la fragilidad, el miedo y la ansiedad? Pues el afecto y el cariño de los demás. Lo social, los vínculos, han seguido allí, más fuertes que nunca.

TXANI RODRÍGUEZ
Periodista

La entrevista completa:
<https://bit.ly/fuerteres-libres-nomadas>



PAIDÓS
75

Las preguntas siguen

ASEL LUZARRAGA

Batek baino gehiagok esana da ez garela deus besteen begietara garen hori baizik. Ariketa hori egin du Asele Luzarragak eleberri honetan, eta hala agertuko zaigu Matxin, Edu lagun minaren galbahetik igarota. Iragazita, murtxikatuta, eta, nahitaez, deformatuta, nork bere mesederako egiten baitu inguruaren irakurketa. Buenos Airesen kokatu du idazleak nobela bixi labur hau, guztiok inoiz ibilitako lurralde komunak esploratzeko: mamuak, traizioa, errua, ihesa.



BAHIKETA
Asele Luzarraga
TXALAPARTA

Izenburua irakurrita, abentura liburu bat dela pentsa dezake norbaitek.

Abentura zelan ulertzen dugun, izan liteke. Lagun biren abenturak izan litezke, Euskal Herriatik Argentinara, baina balizko abentura horiek protagonista baten buruan baino ez dira gertatzen, Edurenean. Badago misterio puntu bat, baina garrantzi handiagoa du misterio hori elikatzen duen psikeak. Eleberri psikologikoa? Berba potoloogia agian.

Nor edo zer bahitzen dute?

Askotan bilatzen ditut titulu polisemikoak, eta halakoa da hau ere. Hortxe dago jolasetako bat: ustezko bahiketa Eduren beldurrak piztu diren unean hasi da, ala lehenagotik zetorren? Bahitzeko modu asko dago, eta haiek bat txantaje emozionala da. Hitzak ere bahi dakiok pertsona bati... Irakurleak erabaki beharko du.

Eduren buruan sartzen duzu irakurlea. Barne bidaia bat da?

Horixe da batez ere, eta barne bidaia horrek Edu eta Matxin baren balizko historia edo istorioak berreraikiko ditu. Gu-



TXALAPARTA

re begiek betetzen dute edukiz bidaia oro. Barne bidaiek, gainera, ez dute mugarik, ez espazioan ez denboran.

Bidaia fisiko bat baino gehiago ere badago, ordea.

Handik hona mugitzen da Eduren burua, eta hala, Buenos Airesen agertuko da orain, Donostian gero, Parisa ere joango da, edo Tigrera..., orainetik balizko iragan eta etorkizunetara. Dena, Edu hiriko punta batetik bestera doala. Hiriri egindako omenalditik ere badauka zerbait.

Anarkismoaren eta marxismoaren arteko eztabaida bat ere bada.

Itxura batean, Matxin anarkistaren ahotsa entzuten da gehien, baina ez da bistatik galdu behar hari buruz daigun guztia Edu marxistaren iragazkitik igarota iristen zaigula. Dialektika probokatzaile bat ere bada.

Zure blogean irakurri dugu ibilbide laburra izan duela eleberri honek.

Bai, azkar idatzi dut, egia esan. Lehen zirriborroa 2012an sortu zen, Buenos Airesera iritsi eta hil pare batera, baina, apunte solteetatik harago, *Bioklik* amaitu arte ez nion heldu, Buenos Airesen artean, eta Bermeen amaitu nuen hil gutxitan.

Gezurra odoletan liburuan (Txalaparta, 2011) Txilerra eraman gintuzun, eta orain Argentinara. Gurean girotu ezinezko istorioak kontatu nahi dituzu?

Konta litezke hemen ere, seguruenik, baina bizi dudana elikatzen naiz, begietatik paperera eroan gura duzu inguratzen zaituena, eta Abya Yalan harrapatu ninduten istorio horiek. Euskal Herriak beti dauka bere tokia, ordea, modu batean edo bestean.

Gazteentzako eta helduentzako literatura idatzi duzu. Hau non kokatuko zenuke?

Lagun biren arteko labirintoetan galdu gura duen edonorentzat dela esango nuke.

GARAZI ARRULA RUIZ
Editorea





“Me pregunté cómo se convirtió Kingsbridge en una ciudad. La visualicé como un lugar pequeño y me imaginé cómo creció.”

KEN FOLLETT



LAS TINIEBLAS Y EL ALBA
Ken Follett
PLAZA Y JANÉS

Ken Follett vuelve a las librerías con *Las tinieblas y el alba*, “precuela” de su célebre trilogía de ventas millonarias. La exitosa historia que se inició con *Los pilares de la Tierra* se prolonga retrocediendo a los tiempos en los que surgió la ciudad de Kingsbridge. *Las tinieblas y el alba* se publica el 15 de septiembre en todo el mundo.

La nueva novela embarca a los lectores en un viaje épico que termina donde *Los pilares de la Tierra* comienza. Es el ocaso de una época violenta y brutal y el amanecer de un nuevo tiempo. Follett despliega una historia llena de sorpresas y reveses, codicia y ambición, amor y coraje en la Inglaterra del año 997, una época bajo la constante amenaza de las invasiones vikingas y la violencia en la que un rey lucha por imponer su ley y orden sobre una aristocracia levantisca y montaraz.

¿Son los personajes de *Las tinieblas y el alba* antepasados lejanos de los protagonistas de las anteriores novelas de la serie?

Sí, aunque, como de costumbre, no se establezca una conexión directa, el tiempo transcurrido entre las épocas de los dos libros es demasiado largo.

***Las tinieblas y el alba* está ambientado durante el periodo anglosajón, ¿qué es lo que le atrajo de esta época concreta?**

Es un tiempo de gran agitación, lo que siempre es fantástico en una novela.

¿Y cómo se planteó la labor de documentación?

Eso fue complicado. Los anglosajones no escribían mucho, casi no han dejado pinturas y gran parte de sus construcciones estaban hechas de madera y hace mucho que se acabaron pudriendo. He examinado la mayoría de las iglesias anglosajonas de Inglaterra, he pasado tiempo en el pueblo anglosajón reconstruido de Stow, he visitado el Museo de Barcos Vikingos de Oslo y he estudiado el Tapiz de Bayeux, tanto el original en Bayeux como la réplica del Museo de Reading.

narrativa

TXERTO A

EL ALFÉREZ DEL ESTANDARTE REAL

Begoña Pro Uriarte

Una novela repleta de aventuras, intrigas, amores y sentimientos, ambientada en la Navarra medieval

WWW.TXERTO A.EUS





TAPIZ DE BAYEUX.



¿Los temas que subyacen en *Las tinieblas y el alba* reflejan la vida moderna?

Esta es una época en la que la gente empezó a exigir lo que llamamos "el imperio de la ley", lo que significa que las disputas se resuelven según unas normas, sin importar lo rico o poderoso que seas. Este es un componente fundamental de la libertad.

¿Qué le hizo querer retroceder a una época anterior a *Los pilares de la Tierra*?

Me pregunté cómo se convirtió Kingsbridge en una ciudad. La visualicé como un lugar pequeño y apartado y comencé a imaginarme cómo creció.

¿Cuál fue el lugar más interesante que visitó para documentarse sobre *Las tinieblas y el alba*?

Sin duda, el museo de Bayeux, en el que se encuentra el tapiz.

LUIS GARCÍA
Periodista

De Gasteiz a Bayeux

Es bien sabido por todos los vascos amantes de la literatura que Ken Follett eligió Gasteiz y su catedral de Santa María para presentar *Un mundo sin fin*, la continuación de *Los pilares de la Tierra*, la novela que se convirtió en un fenómeno editorial con más de veintisiete millones de ejemplares vendidos en todo el mundo.

Esta segunda parte de la trilogía, que se cerraría años después con *Una columna de fuego*, describe el proceso de deterioro de la catedral de Kingsbridge en tiempos de la peste que asoló Europa y diezmó su población. Los trabajos en la catedral de Gasteiz le sirvieron a Follett para ilustrarse sobre los procesos de desgaste de los pilares, desequilibrios, corrientes subterráneas y humedades que afectan a este tipo

de edificios. Como reconocimiento a la difusión que el escritor realizó de las obras de restauración de la catedral, la capital alavesa le erigió una estatua: un Ken Follett meditando de bronce a tamaño natural y de estilo hiperrealista que saluda a los viandantes en la plaza de la Burullería, anexa a la catedral.

Los números de Follett asombran. El escritor galés ha vendido 170 millones de ejemplares de sus 32 libros, publicados en más de 80 países y en 33 idiomas. Su nueva obra, *Las tinieblas y el alba*, se presenta como precuela de una trilogía de la que se han vendido 43 millones de ejemplares.

Por primera vez en la saga, Follett mira al mar. El protagonista de esta novela es un joven constructor de


barcos de gran talento que vuelca su pasión en crear nuevos diseños e innovaciones para sus embarcaciones.

Para documentarse sobre la sociedad anglo-sajona en la que ambienta su narración, así como sobre las invasiones vikinga y normanda, el escritor galés ha acudido a diversas fuentes de información. Quizás la más llamativa, y la que el propio autor reconoce ser la que más le ha impactado, sea el tapiz de Bayeux (Normandía), un lienzo de bordado del siglo XI que describe en imágenes la conquista normanda de Inglaterra. De dimensiones singulares (69,55 metros de largo, 50 centímetros de altura media y 350 kilogramos de peso), constituye una fuente única para conocer la sociedad inglesa y normanda en este periodo de la Edad Media.



RUTAS para conocer los PIRINEOS EN CAMPER

sua
EDIZIOAK



BURGOS


EL JUICIO DEL SIGLO XX

En *El Proceso de Burgos 50 años después*, Iñaki Egaña repasa con la solvencia y amenidad que le caracterizan las circunstancias que rodearon al juicio más influyente en la Euskal Herria del siglo XX.

Entre el 3 y el 9 de diciembre de 1970, dieciséis jóvenes vascos, trece hombres y tres mujeres, fueron sometidos a consejo de guerra sumarísimo en la Capitanía General de Burgos, acusados de formar el núcleo dirigente de ETA y haber dado muerte a Melitón Manzanas, comisario de la Brigada Político-Social, la policía política franquista, señalado por las organizaciones opositoras como el paradigma del torturador.

El régimen quiso mostrar músculo y, de hecho, impuso la pena de muerte a seis de los acusados (a tres por partida doble) y más de 500 años de prisión a todos en conjunto. Pero la reacción popular e internacional fue de tal calibre que el propio régimen se vio obligado a conmutar las penas capitales y, en definitiva, salió malparado. Por el contrario, ETA, una organización incipiente, salió fortalecida y, sobre todo, la existencia de la "causa vasca" se dio a conocer en todo el planeta.

En este libro, Egaña repasa los pormenores del juicio. Recuerda la endeblez de las acusaciones, la novedosa estrategia de la defensa o el épico final, con los acusados entonando el *Eusko gudariak* y los militares desenvainando sables y pistolas.



EL PROCESO DE BURGOS 50 AÑOS DESPUÉS

Iñaki Egaña
TXERTOIA

Pero da cuenta también de qué estaba pasando en el exterior. Por ejemplo, de cómo se llevó a cabo y se resolvió el secuestro del cónsul de Alemania en Donostia, Eugen Beihl. O de la poco conocida Operación Botella, intento de fuga masiva de los presos vascos en Burgos al que, para tener éxito, solo le faltó un poco de suerte. Por supuesto, Egaña no pasa por alto las movilizaciones y la sangrienta represión.

El capítulo final está dedicado a la evolución de los protagonistas del juicio, pues es obvio que en años posteriores siguieron caminos diferentes.

Este libro refrescará la memoria y aportará perspectiva a quienes vivieron aquellos hechos. A quienes no lo hicieron, les permitirá comprender por qué el que podía haber sido un consejo de guerra más contra militantes vascos se convirtió en el juicio más influyente en la Euskal Herria del siglo XX.

La obra incluye casi un centenar de imágenes, muchas inéditas o poco conocidas, rescatadas de archivos y fondos particulares por Juantxo Egaña.

Incluye también, como anexo, el prólogo que Jean-Paul Sartre, el intelectual más influyente del momento, escribió para el libro que la abogada pro derechos humanos Gisèle Halimi publicó sobre el juicio. Un prólogo cuyo arranque no podía ser más contundente: "Si hay que creer a la prensa, lo único escandaloso del juicio de Burgos ha sido sacar a la luz la absurda ferocidad del régimen franquista. No lo creo (...) Este juicio ha provocado malestar en las conciencias en España y fuera de España porque ha mostrado a los ignorantes la existencia del hecho nacional vasco".

KARMELE URRUTIA
Periodista

Nuevas miradas
para reinterpretar
el PASADO
y el PRESENTE



Ariel
CRÍTICA
PENÍNSULA

UXUE ALBERDI

Askotariko oihalez, liburuz eta zer txikiz bete-beterik daude Pitxintxuko dendaosteko apalak. Leihatearen ondoko mahaitxoan eseri, josteko makinak gainbegiratu eta kontualdiari ekiteko prest Uxue Alberdi (Elgoibar, 1984): literaturaz, politikaz, hizkuntzaz... Dendaurre eta ostekoez.



Logika ez eze, literatur generoen mugak ere hautsi dituzu zelanbait kontakizun honekin: *Dendaostekoak* ez da nobela bat, ezta kronika bat ere.

Hasieran, kazetaritzatik gertuago egon zitekeen formatu bat neukan buruan baina laster konturatu nintzen literaturtasuna behar nuela kontakizunean inplikatzeko; narrazio nobeleskoa da fikzioa ez izan arren. Bi dendariri eginiko elkarrizketa luze eta interesatua –500 galdera egingo nizkien!– erreminta literarioak erabiliz jostea izan da nire apustua.

“Euskaratik euskararako itzulpen bat egin behar izan dut: euskara zuzena egiten ez duten narratzaile biren neurriko hizkuntza literario bat sortzen saiatu naiz, ahoz-kotasunaren aldetik sinesgarria eta, era berean, kontaeran aberatsa izango dena.”



DENDAOSTEKOAK
Uxue Alberdi
SUSA

arrunt: oinarritzko ikasketak egin ondoren, jostera eta brodatzera bidali zituztenak eta 18-20 urterekin, independentizatu nahi izan zutenean, liburu denda-mertzeria bat zabaldu zutenak.

Kontakizun nagusia eurek daramaten arren, ez dira liburuan ageri diren ahots bakarrak.

Ez. Pitxintxu atek zabalik dituen leku bat izan da beti, joan-etorri handikoa, eta inportantea iruditzen zitzaidan errelatoa testigantza horiekin osatzea. Hor daude Jose Luisa eta Rosa, Pitxintxuko langileak, Logroñokoa bata eta eibartarra bestea; hor dago Mila, pareko dendako zapata saltzailea eta, amak eta izebak ez bezala, familia-negozioa oinordetzan jaso zuena; hor dago Karmelo, bezeroa eta laguna...

“Narrazio nobeleskoa da fikzioa ez izan arren.”

Liburua bera ere, joan-etorrika egituratu duzu.

Bai, dendak nolabaiteko oreka arraro bati esker funtzionatzen du; gaur egungo saltoki minimalista horien guztiz kontrakoa da... Disparate eder bat! Eta izaera hori testuan isla zedin nahi nuen: izan zedila hasiera batean desordenatua eman dezakeen konposizio bat, baina funtzionatzen duena. Atal bakoitza pasarte labur solteekin osatuta dago: testuinguru sozio-politikoari lotutakoak, joskintzari lotutakoak, familiari edo bikote harremanei buruzkoak, bezeroak, liburugintza, emakumeak eta mendia... Baina, era berean, atal nagusi horiek aurrera egiten dute denboran; logika hautsi baten barruan funtzionatzen du liburuak.

Hizkuntzaren trataerari dagokionez, zer erronka suposatu dizu horrek?

Elkarrizketa guztiak egin genituen euskaraz baina, amaren eta izebaren ama-hizkuntza gaztelania izanik, esan-indarra behar dutenean erdarara jotzen dute, edo keinuz adierazten, edo hitzak asmatzen... Orduan, euskaratik euskararako itzulpen bat egin behar izan dut: euskara zuzena egiten ez duten narratzaile biren neurriko hizkuntza literario bat sortzen saiatu naiz, ahoz-kotasunaren aldetik sinesgarria eta, era berean, kontaeran aberatsa izango dena.

Eta non topatu du ornitorrinko batek dendaostera sartzeko zirrikitua?

Liburua gauza txiki askorekin bete-beteta dagoenez, portada soil bat nahi genuen eta ornitorrinkoa proposatu zigun Xabier Gantzarainek: hibridotasuna eta sailkaezintasuna iradokitzen ditu, desagertze arriskuan dagoen espezie bat da...

Zer da zuretzako Pitxintxu?

Nire umetako geografiaren ardatza da, etxe bat. Amak eta izebak hementxe egiten zuten lan eta egunero etorritzen nintzen bokadiloa hartzera, dantzako zapatilen bila... Uste dut nire zimenduak, partez, hemen eraikiak direla eta, lan hau egiten aritu naizen bitartean, geografia honetan egosi dena kanporagotik ikusten eta ulertzen saiatu naiz.

Eta zerk ekarri zintuen atzera dendaostera?

Hau guzti hau bildu beharra sentitzen nuen: dendaren historia, jende-mota baten bizitza... Oso modu intimoan hasi nuen proiektua, baina berehala jabetu nintzen dena izan zitekeena gure herrietako hainbat geruza sozial eta politikori buruz aritzeko bitartekoa ere. Hari guztiak lotzen dira dendara, baina nahinora luzatzen dira.

Zuen ama eta izeba, Marijose eta Izaskun Estibaritz dira *Dendaostekoak*eko narratzaileak. Zelan aurkeztuko zenituzke?

Hasteko, bizitza osoan zehar elkarri eutsi dioten bi ahizpa direla esanez. Elgoibartarrak, euskaldun berriak, herri-mugimenduetan inplikatuak, mendizaleak... Teoria jasorik gabe baina konbikzio irmoekin funtzionatzen duten bi pertsona; oso ondo bizitzen dakitenak eta, batez ere, bizipoz handia transmititzen dutenak. Bi herritar

RUTAS CIRCULARES FÁCILES POR EUSKAL HERRIA

Las ascensiones, travesías y excursiones de trazado circular tienen un encanto especial, porque nos conceden perspectivas y nos dan a conocer parajes que quizás la ruta lineal hubiera dejado al margen. Nos evitan desandar lo ya andado o tener que recurrir a varios vehículos para completar la jornada. El libro *Rutas circulares fáciles* de la colección Euskal Herria propone 45 itinerarios por todo tipo de escenarios naturales.

El autor, el experto montañero Txusma Pérez Azaceta, ha elegido este amplio abanico de rutas que se reparten por todo el país. Además, encontramos en ellos gran diversidad de perfiles y parajes, desde paseos cortos por las cercanías del mar hasta ascensiones más clásicas a grandes nombres de nuestra geografía. Pero todas ellas cumplen con las características principales de ofrecer un camino de retorno diferente al de la ida y de carecer de dificultades técnicas y dureza.

De esta manera, el libro permite a todo tipo de públicos disfrutar a fondo de la naturaleza, de la montaña y de nuestro patrimonio cultural. Las suaves colinas del valle de Arberoa, en Nafarroa Beherea, por ejemplo, nos encandilarán con sus siempre verdes ropajes salpicados del blanco

de los caseríos. La sierra de Árcena, en la muga de Araba y Burgos, sorprende por los extensos bosques que cubren sus abruptas laderas, mientras el Ebro zigzaguea a sus pies en busca de un estrecho paso hacia el Mediterráneo.

En Bizkaia quizás sea un recorrido tan singular como la vuelta a Udalatx la que nos impacte por la belleza de muchos de sus tramos, entre caseríos, ermitas, bosques autóctonos, el desfiladero de Atxarte y los airosos picos calizos aledaños. En Gipuzkoa la ruta que enlaza Zumaia



RUTAS CIRCULARES FÁCILES

Txusma Pérez Azaceta

SUA EDIZIOAK

y Getaria por Askizu y Garate saciará, seguro, las expectativas más elevadas, con su insuperable combinación de paisaje rural y costero. Y ¡qué decir de la original subida a Orhi previo paso por Muxumuru, o de la ruta de Gartxot, o de cualquier de las propuestas que el libro traza sobre la variada geografía navarra! Memorables.

Seix Barral

Ignacio Martínez de Pisón Fin de temporada

La familia no es un buen lugar para guardar un secreto.



El número 40 de Euskal Herria

El libro *Rutas circulares fáciles* lleva en su lomo el número 40 de la colección Euskal Herria Liburuak, nacida en 2014 como continuadora de la revista Euskal Herria. Una cuarentena de títulos que han abordado de una manera seria y rigurosa, pero también amena y divulgadora, la naturaleza, la montaña y el patrimonio histórico y cultural del país. Siempre con el fin de incitar a quien lee los libros a saltar del sillón a la calle, al monte, al bosque, al desfiladero, al río... a conocer Euskal Herria porque, como dice el viejo adagio árabe, no se puede amar lo que no se conoce.

Algunos de sus títulos se han convertido en auténticos clásicos. Es el caso, entre otros, de *Guía de vías verdes*, *Los mejores paseos por la costa vasca*, *Las otras cumbres de la montaña vasca*, *Excursiones a ventanillas naturales* o *Rincones que te sorprenderán*. La colección publica cada año seis títulos y ofrece la posibilidad de adquirirlos a un precio muy inferior vía suscripción anual.

Más información:
<https://sua.eus/es/suscripciones/>

Son, por tanto, 45 rutas y otras tantas opciones para realizar grandes planes por la geografía del país. Y, como recomienda el autor, se pueden acompañar a los ritmos del año: los bosques de Soila, Itxina, Artikutza o Bertiz pueden ser el destino perfecto en otoño; atalayas costeras como Ogoño, Pagoeta o Mitxitxola resultan ideales para el invierno; la primavera nos puede sorprender en el valle de Harana, la sierra de Lokiz o montes como Illun-

zar y Adarra; y los meses veraniegos quizá sean los más adecuados para las ascensiones a clásicos como Lakhura, Artzanburu y Toloño o a cimas menos visitadas como Elimendi, Unamendi o Imeleku. Ondo ibili!

TOMAS ZABALLA
Periodista

NOBEDADEAK



**RUTAS CON NIÑOS
POR LOS PICOS
DE EUROPA**
Noel Arraiz /
Águeda Monfort
XPLORA

Los Picos de Europa son un lugar mágico que ofrece a los niños un abanico sin fin de posibilidades donde poder desarrollar su potencial, experimentar, imaginar, jugar y, en definitiva, aprender y desarrollarse como personas.




**ENTRENAMIENTO
DE ESCALADA
BASADO EN
LA EVIDENCIA
CIENTÍFICA**
Sergio Consuegra
DES NIVEL

El propósito de este manual es aportar información de calidad al lector, desde el escalador que quiere dar un paso más en su entrenamiento hasta el técnico deportivo que quiere mejorar los entrenamientos de sus alumnos.



**RUTAS PARA
CONOCER LOS
PIRINEOS.
LOS MEJORES
ITINERARIOS
EN CAMPER**
Loli Flores /
Mario Cruz
SUA EDIZIOAK

Esta guía aborda las dos vertientes de la cordillera y propone planes especialmente pensados para quien viaje en furgoneta: visitas, excursiones y ascensiones (con códigos QR para descargar los tracks), lugares de pernocta (con las coordenadas GPS)....



**CANFRANC,
ANSÓ Y ECHO**
Alberto Urtaun
ALPINA

Guía excursionista para todas las edades, excursiones con niños y en familia por los valles de Canfranc, Ansó y Echo. Son veinte itinerarios con descripciones y mapas parciales de cada ruta.



**EXCURSIONES
FAMILIARES
POR EL PARQUE
NACIONAL DE
ORDESA Y
MONTE PERDIDO**
Eduardo Viñuales
SUA EDIZIOAK

Este parque natural no es un territorio reservado para grandes montañeros. Los niños también tienen su sitio en estos paisajes maravillosos. En este libro Eduardo Viñuales, naturalista de campo, nos propone 34 rutas para disfrutar en familia del entorno protegido.



CUBA (GUÍA TOTAL)
VVAA
ANAYA TOURING

Esta guía, a través de cinco itinerarios turísticos, recorre los más atractivos lugares de Cuba y proporciona las claves para su visita e información útil sobre medios de transporte, alojamiento, gastronomía....

«—Tú y yo podríamos asociarnos para hablar de la vida; levantaríamos un gran relato sobre la existencia. ¿Lo hacemos? -dijo el escritor.

—Lo hacemos —contestó el paleontólogo.»



A la venta 23/09/2020

EL INGENIO DE
MILLÁS Y LA SABIDURÍA
DE ARSUAGA UNIDOS
PARA CONTAR LA VIDA
COMO LA MEJOR DE LAS
HISTORIAS

ALEAQUARA

Penguin
Random House
Grupo Editorial

www.miegustaleer.com

Disponible
en ebook

Disponible
en audiolibro

JOAN MARI TORREALDAI, euskalgintzaren erreferente

Jakin eta
Joan Mari Torrealdai
erreferentzia izan dira
elkar Fundazioarentzat.



Eredu izan da euskalgintza sozial bat artikulatzeko egin duen ahaleginagatik. Argi izan zuen -belaunaldi oso batek bezala- euskarak eta euskal kulturak ekimen sozialetik, gizarte zibiletik egin zezakeela aurrera, hura izan zela frankismoan argia pizten hasteko bidea, eta bide hori ezin zela eten Euskal Herrian erakunde propioak sortuagatik, mugimendu sozialak euskara eta euskal kulturaren dinamizatzaile izatea oso garrantzitsua zela, ordura arte egindakoa eten ez zedin. Are gehiago, oso argi zuen ekimen berriak ere gizarte zibiletik lideratu behar zirela, erakunde laguntzarekin eta haiekin ahalik eta elkarlan handiena eginez, baina independentziatik, erakunde, enpresa edo alderdi politikoen esanetara ibili gabe.

Belaunaldi horretan, euskara eta euskal kulturaren euskalgintzako erreferente nagusietako bat izan da Joan Mari: hitzez eta ekintzez erakutsi digu gizarte zibiletik nola eragin eta nola egin lan. Politikoki polarizatuta zegoen gizarte batean, eta herri erakundeek zalantza ikusten zutenean gizarte zibilean, euskalgintzan ernatutako ekimena, haren aldeko apustua egin zuen, hitzez eta ekintzez. Hori nabarmena da haren izena *Jakin*, *Egunkaria*, *Elkar* eta ezinbesteko beste hainbat proiektu lotuta ikusten dugunean.

Herri ekimenaren indarra eta balioa defendatu izan ditu Joan Marik, eta ordaindu zuen hautu hori. Zorionez, egindako ekarpenarekin geratuko gara, baina ezin dira ahaztu bere ibilbidean zehar euskalgintzaren alde egindako hautuak ekarri zizkion ondorio latzak ere, haren independentzia auzitan jarria -beste askorenarekin batera- eta bera atxilotu, torturatu

eta kartzelatua izateraino, *Egunkaria* itxi zutenean, bertako beste hainbatekin batera.

Ukaezina da ikerketan zein ekintzailertzan egindako ekarpena. Ikerketari dagokionez, bereziki aipatukoak dira zentsuraren gainean egindako azterketa lana, euskararen soziologian egindakoa eta 40 urtetik gora urtero-urtero euskal liburugintza aztertuz egindakoa. Lan horiek atentzioz irakurrita, agian gure gizartearen gaur egungo gako asko ulertuko genituzke. Dokumentuz jositako azterlan ugari utzi digu, eta eskura ditugu, jakintza hori gal ez dadin.

Baina Joan Mari ez da soilik intelektual ikertzaileria izan: ekintzailea ere izan da. *Anaitasuna* aldizkari zuzendari izan zen hiru urtez. *Jakin* aldizkaria berpizteko ardura hartu zuen, eta urteetan berak zuzendu zuen, gogoeta sozialerako izan den euskal aldizkaria ezinbesteko bihurtuz. Berak eta *Jakin* Talde historiko osoak -Azurmendi, Agirrebaltzategi, Intxausti- argi izan zuen aldizkariaren jarraipena nahi zuela, eta belaunaldi berri baten eskuetan utzi zuen segida ziurtatzeko. **elkar** taldeko kide ere izan da, argitaletxean parte hartuz hasieratik eta **elkar** Fundazioko lehendakaria ere izanik hiru urtez -azken egunetaraino bertako Batzorde Eragileko partaide aktiboa izan da-. Garrantzitsua da, bestalde, *Euskaldunon Egunkaria*, XX. mendearen amaieran herri ekimenetik sortutako azken proiektu nagusia euskararen normalizazioari begira. *Egunkariaren* sorrera prozesuan parte hartu zuen, eta bertako lehendakari ere izan zen hura bortizki itxi zuten arte. Eta ezin aipatu gabe utzi Martin Ugalde Kultur Parkea, euskal kulturaren gune sustatzaile izateko sortutakoa, zeinaren ideian Joan Marik parte hartze handia izan zuen, eta zeinaren balioa

inork baino hobeto ikusi izan duen gaur egun arte. Euskal kulturaren habe ezinbesteko askotan buru-belarri aritu izan da, beraz; betiere proiektu bakoitzaren independentzia aldarrikatuz eta elkarlana sustatuz, proiektuen artean, eta bakoitzaren barruko dinamikan.

Joan Marik herri ekimenean sinesten zuen, gizarte zibilaren ekimenean sinesten zuen, eta ideia horri lotuta eman du bizitza, hitzetan zein ekintzetan. Badugu nondik ikasi.

elkar Fundazioan dena partekatu dugu Joan Marirekin. Gorago esan bezala, argitaletxearen lehen urratsetatik hasi zen parte hartzen taldean eta fundazioko lehendakari ere izan zen. Askotan azpimarratzen dugu kultur industria eta enpresa izaera, baina beti egin dugu hori lotuta euskal kulturari, sinetsita euskal kulturak egitura sendoa behar dituela, lehen haize ufadak dena bota ez dezan. Kultur industriari lotutako egitura herritarra izan da fundazioaren apustua eta bere baloreetan izan ditu euskaltasuna, lurraldetasuna, konpromisoa eta profesionaltasuna, elkarlana, eredu sozialeko izaera eta berrinbertsioa. Balore guzti horiek ezartzeko orduan, Joan Mariren esku hartzea ezinbestekoa izan da. Joan Marik elkarlanerako bideak ireki izan ditu, beti izan da *Jakineko* eta **elkarreko**, eta beti jakin izan du erakunde bien arteko elkarlana sustatzen, bakoitzaren independentzia kontuan hartuta.

Erreferentea izan da eta izango da hemendik aurrera ere, asko dugu eta beregandik ikasteko eta!

Mila esker Joan Mari,
beti gogoan izango zaitugul!

Erabilera helburu, ikastea lehen pauso



Urteak daramatzagu euskararen arazoa erabileran jartzzen, ezagutzen egin den hazkundera kontuan hartuta, erabilera ez omen delako neurri berean hazi. Ez dugu uste kontua denik euskararen normalizaziorako politikak lehentasunak batean edo bestean jarri behar dituen, eremu

guztietara begira politika oso eta eraginkorra behar dugu, gaur egun oraindik ez duguna. Politika oso hori egiteko aukerak badaude baldin eta euskarari lehentasuna eta baliabideak ematen bazaizkio, eta horren alde jarraituko du lanean **elkar** Fundazioak orain arte bezala.



KONTRALUZ

Lehentasunak lehentasun, guk argi dugu euskararen ezagutzen oraindik zer egin handia dela, eta hor pauso sendoak ematen jarraitu behar dugula. Erabilera handitzea helburu duen Euskaraldia ekimenak berak agerian jarri digu hori, hizkuntza ohiturak aldatu behar dira eta horretarako gutxienezko ezagutza behar da, gutxienez ulertzeko gaitasuna, hori gabe zaila erabilera azkartzea.

Ezagutzaren unibertsalizazioaz sakon hitz egin behar da herri honetan, esan nahi baita urrats oso sendoa litzatekeela herritar guztiok euskara jakitea, aldi berean erabilera azkartzeko politikak eta ekimenak garatzeko gauza bagara. Haur zein helduen hezkuntzaz ari gara eta hori derrigorrez euskararen bidetik egin behar da: hezkuntza eredu euskalduna behar dugu, gazteek eskolatze prozesutik euskaldunduta atera daitezzen; eta, haiekin batera, helduak euskalduntzea derrigorrezkoa da, elkarrekin bizi garen neurrian, erabileraren plazan, elkar eragingo dugulako. Beti ere, kontuan

hartuta, ikasten duenak gero euskaraz bizitzeko aukera izan behar duela inguruan -horregatik behar dira politika osoak-.

Bi eremu horietan, hezkuntzan eta euskararen ikaskuntzan, ibilbide luzea egin du **elkar** Fundazioak bere historian, eta gaur egun ere etengabeko lanean ari da horretan, euskal gizartearen beharrak aztertu eta hari erantzuteko materiala sortuz. Etengabeko berrikuntza lanean oinarrituta, Ikaslekar eta Elkar argitaletxeek eskolarako eta euskara ikasteko material moderno eta egokia eskaintzen dute, eta etengabe ari dira bere eskaintza eguneratzen.

Elkar argitaletxeak, azken urteetan Arian euskara ikasteko metodoa diseinatu eta argitaratu du, propio horretarako sortutako edizio talde batek landuta -eta, metodoarekin batera, hainbat material euskara lantzeko: gramatika, irakurgaiak... ikasten ari denak behar dituen tresnak-. Ikaslekar hezkuntza argita-

letxeak, berriz, Ikastolen Elkarteko eta Elkar argitaletxeko lan taldeen eskutik, LHko azken urteetarako eta DBHrako EKI material berritzailea egin ondoren, HH eta LHrako bi proiektu lantzen dihardu eta maila horietarako proiektu berritzailea eskainiko du hemendik aurrera, *Kuku* eta *Kimu*. Proiektu horien helburua da, besteak beste, euskarazko irakaskuntza eta euskararen ikaskuntza errazteko eta berritzeko eta pertsona jantzia eta euskalduna lortzeko, irakasleei eta ikasleei tresnak eskaintzea.

Taldeko argitaletxeen bidez, **elkar** Fundazioak eta bere baitako enpresek haien funtzioa betetzen dute, euskalgintzako eta euskal kulturegintzako gainerako eragileek egiten duten bezala. Lan handia egiten da eragile sozialen aldetik, nork berean, eta, lan hori ezerezean gera ez dadin, lortu beharko genuke, erakunde publikoekin batera, hizkuntza politika eraginkorra, hurrengo urteetan, euskara kezka iturri izan ordez, herri honetako ohiko hizkuntza izan dadin.

KIMU, KUKU ETA ARIAN

ikasteko eta euskalduntzeko metodoak



Ez, ez dira umeen algarak ekarriko dituzten pailazo berriak, baina irribarrea marraztuko dute gure aurpegietan, euskara berreskuratzeko bidean albiste onak sortuko dituztelako. Kimu, Kuku eta Arian euskararen ezagutza eta erabilera zabaltzeko tresna eragingarriak dira, nork bere eremutik: lehen hezkuntza, haur hezkuntza eta euskara ikasteko metodoa, hurrenez hurren.

KIMU da Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako Ikaslar hezkuntza argitaletxea prestatzen ari den proposamen berria. KUKU Haur Hezkuntzarako emozio programa da, eta emozioak lantzeaz gain, ahozotasuna jorratzea du helburu.

Euskal curriculumaren markoan daude kokatuta bi proiektuak eta pertsona kompetenteak lortzen laguntzea da helburua. Ikaslearen irteera profila hartu da kontuan, beraz, KUKU eta KIMU proiektuak diseinatzeko eta garatzeko.

KIMU

Hiru programako egitura du oraingoz KIMUk: Matematika, Erronka eta Euskara eta literatura. Euskara eta literatura programak, Hizkuntza –eta literatura– komu-

nikaziorako konpetentziari erantzuten dio, eta hizkuntzaren ikuspuntu komunikatiboa abiapuntu hartuta, heziketa literarioaren garapena eta sormenaren lanketa ditu helburu. Euskara literaturatik abiatuta eta jolasaren bidez lantzen da, batik bat. Lehen mailan, sei obra literario (ipuin, poema-bilduma, album ilustratu...) dira programaren oinarri eta abiapuntu. Horietatik eratorriko dira hizkuntzarekin jolasteko proposamenak: hiztegi-txartelak, poema-txartelak, bingoak, dominoak... Joxean Ormazabal, Alaine Agirre, Juan Kruz Igerabide, Garazi Camio, Castillo Suarez eta Andu Lertxundi dira lehen sei obra literarioen sortzaileak, Elena Odriozola, Irri-Marra, Ainara Azpiazu (Axpi) eta Julen Rivas ilustratzaileekin batera.

KIMUn liburuei eta haien sortzaileei arreta handia jartzen zaie. Ikasleek liburuen atzean dauden idazlea eta ilustratzailea ezagutuko dituzte, eta beraien obra behin

LAS GRANDES HISTORIAS SIEMPRE
TIENEN GRANDES COMIENZOS.

INGLATERRA. AÑO 997.


Llega a las librerías el libro del año.
LA PRECUELA DE LOS PILARES DE LA TIERRA.



PLATA JANEL

Penguin
Random House
Grupo Editorial

www.megustaleer.com



eta berriz erabiliz (obrarekin jolastuz, memorizatuz, birstortuz, eraldatuz...) hizkuntza ikasi eta landuko dute, eta sormenerako grina jorratuko dute. Horretarako, jakina, kalitate handiko ereduak sortu dira berariaz proiektu honetarako.

Erronka deituriko programan ere hizkuntzaren eta euskal kulturaren transmisioak garrantzia handia izango du. Adibidez, unitate bakoitzaren gai berriaren aurkezpena jarritako bertsoen bidez egiten da. Horretarako, Bertsozale Elkartarekin lankidetzan, sei bertsolarik sortu dituzte bertso sortak: **Unai Mendizabal**, **Ander Elortegi**, **Estitxu Arozena**, **Maddalen Arzallus**, **Iñaki Gurrutxaga** eta **Nerea Ibarzabal**. Lehen mailarako sortetan, ikasle profilari egokitutako interes guzietatik abiatuta eta doinu zahar ezagunetan eman dituzte bertsoak, familia askotara bestela nekez iritsiko litzatekeen transmisioa eginez.

KUKU

Poza, haserre, beldurra, tristura, nazka eta sorpresa oinarritzko emozioen lanketarako programa da KUKU eta literatura eta arte lanak, jolas eta tailerrak ditu lanerako abiapuntu, irakasleentzat plangintzarako eta ebaluaketarako erremintekin batera.

Emozio bakoitzak horma-irudia, album ilustratua eta bideoa izango ditu KUKU emozio-programan; horiez gain, emozio-txartelak, dominoak eta memoria-jokoak osatuko dute programaren bilduma. Elementuok kalitatea



eta aniztasuna dituzte ezaugarri nagusi, emozioen lanketarako eduki oso zehatzaz gain, formatuaren erabilgarritasun eta erakargarritasuna izan baitira helburu nagusia. **Iñigo Astiz**, **Leire Salaberria**, **Mikel Valverde**, **Belatz**, **Gorka Aranburu** eta **Mai Egurza** idazle eta ilustratzaileak dira hasierako sortaren sortzaileak. Talde honi izen propio gehiago erantsiko zaizkio laster.

ARIANen ekarpena

ARIAN Euskara ikasteko metodoa, autoikaskuntzarako metodo osoa da: Ikaslearen liburua, Lan-koaderno, Irakurgai mailakatuak bilduma eta ikus-entzunezkoak osatzen dute metodo osoa. A1 mailan hasi eta C1 maila barne hartzen ditu, eta dagoeneko urte batzuetako ibilbidea egina du euskaltegi eta ikastetxeetan, euskararikasle eta irakasleen oso harrera onarekin, zegoen premiaren erakusle.

ARIANek planteamendu komunikatiboa eta ekintza ikuspegia hartzen ditu aintzat, eta egoerak eta gaiak aukeratzean, batez ere Euskal Herriko proposamenak egiten ditu. Izan ere, hizkuntzarekin batera euskal kultura ezagutaraztea ere badelako helburua.

ARIANen azken proposamena, Euskal Herriko zazpi hiriburuak ezagutzeko zazpi irakurgai mailakatu dira. Liburuxka hauek hiriak ezagutzeko bisita gidatuak eskaintzen dituzte, euskara errazean (B1 maila), hiztegitxo baten laguntzaz, audioliburu barne dutela, hiri bakoitzaren historia eta hainbat istorio kontatuz. Euskara-ikasleentzat ez ezik edonorentzat oso lagungarri izan daitezke.

MIREN ETXABE
Kazetaria



KONTRALUZ

El camino del arquero

PAULO COELHO

directo al corazón

Una novela para aprender a gestionar tus emociones.

booket

ENEKO AIZPURUA

Eneko Aizpuruak (Lazkao, 1976)
***Bidasoan gora* argitaratu berri du,**
erreportaje eta saioaren arteko
liburua, Tene Mujika sariaren
laguntzaz idatzia. Ibaian zehar
ikusitakoak nahiz liburuetan
ikasitakoak kontatzen ditu egileak:
kontrabando eta migrazio kontuak,
naziak nahiz guardia zibilak,
baserritarrak zein mugalariak...
Atzoko eta gaurko istorioak, uraren
eta memoriaren ibiliak elkartuak.



BIDASOAN GORA
 Eneko Aizpuru
 ELKAR

Orain arte, nobela beltzen egile gisa ezagutu izan zaitugu. Orain, berriz, guztiz bestelako lan batekin zatoz. Zer dela-eta salto hori?

Mikel Egileor kazetaria pertsonaia nagusi duen trilogiaren



azken atala idaztean, aldi bat amaitu zela iruditu zitzaidan. Bazela garaia bestelako gauzak idaztekoa, nahiz proiektu berrietan ere betiko gaiak eta obsesioak errepikatzen diren sarri. Nobela beltza atsegin dut. Ez, ordea, literatur genero bakarrera mugatzea.

Bidaia kronika eta saiakeraren artean dago *Bidasoan gora*, eta hainbat idazle datozkigu gogora: Sebald, Magris-en *Danubioa*... Norbaiten eragina azpimarratuko zenuke?

Niretzat eredu dira Sebalden eta Magrisen lanak, bai eta Handkerenak ere. Gozamen bat da ikustea nola harilkatzen dituzten gogoeta alderraiak bidean urratsez urrats. Euskal literaturaren esparruan, ildo horretan kokatuko nituzke, aldeaz edo moldez, Pello Lizarralderen eta Anjel Lertxundiren zenbait lan.

Txinguditik abiatu eta Xorroxinen amaitu, bertatik bertara ikusia islatzen duzu uneoro, baina baita irakurketen eta dokumentazioaren bidez jasotakoa ere. Ze inportantzia eman diozu horietako bakoitzari?

Bata bestearen parean jarri ditut. Liburua *Bidasoan gora* oinez egindako bidaia baten kontakizuna da. Aurretik egindako irakurketek eta dokumentazio lanak zedarritu

dute ibilbidea. Baina, aldi berean, ibaia gora ibiliz ikusitakoek eta bidean topatutako pertsonen lekukotzek ere bideratu dute idazteko prozesua. Azken batean, ez nekien nondik eramango ninduen ibaiak bihurtzeko bihurtzeko.

Oraina eta lehena, ur emari berean urtu dituzula dirudi, ezta?

Aspaldiko kontuak direlakoan gizakiak askotan erreparatzen ez badie ere, iraganaren ur tantak orainaren ibai zabalean daude igeri. Horregatik, oroimenaren bidez iragana orainaren hegira ekarriz, gaurko egien arrakalatan zalantza ereiteko ahalegina ere bada literatura.

Lazkaotarra zara sortzez, baina ez duzu idatzitako "Agauntza" edo "Oria" edo... Zergatik Bidasoa? Zerk liluratu zaitu bertatik?

Bidasoa bidegurutzean dago, bizipen eta pentsamolde diferenteen elkargunea eta maiz borroka zelaia da. Baina, kontraesanak eta oztopoak gorabehera, itsasorako bidea bilatzen dute isil-gordean ibaiaren urek.

Badago liburu osoan zehar estatuen mugen kontrako aldarri ozen bat, baita pertsonak zantzen dituzten ideologiaren kontrakoa ere...

Ilidotik ateratzen diren pertsona eta pentsamendu alde-rraiak izan ditut bide-erakusle. Mugaldeko bazterretan ikusten da hobekien estatu arazoak eragindako gehiegikeria eta triskantzen ondorioa, bai eta hasieran ideia eder eta aratzak ziruditenak nola bihurtzen diren denborarekin zapalkuntzarako tresna ere.



TERESA LARREA
 Kazetaria

EDITORIAL RENACIMIENTO

Los piratas vascos
 15x21 · 344 pp · 19,90 €

Marcas en la piedra
 15x21 · 296 pp · 19,90 €

Memoria de la melancolía
 15x21 · 464 pp · 22,90 €



NEGU GORRIAK ETA FERMIN MUGURUZA Elkar biniloetan

Hogei urte genituen eta gure ordua iristear zela sentitzen genuen. 80ko hamarkadako musika eszenaren hondarrak nerabezaroaren bigarren lerrotik ezagutu ondoren, erdigunera pasatzea zegokigun. Hamarkada berria gure hamarkada izango zen eta aurrekoengandik ezberdinduko gintuzten erreferentzia berriez –musikalak, ideologikoak, estetikoak– gose ginen.

Egina genuen euskaraz bizitzeko hautu kontzientea, eta beharrezko momentuan Negu Gorriak agertu zen “euskalduna naiz eta harro nago” aldarrikatzeko beltzen rap kantaera eta sanplerren gainean. Bagenuen bilatzen genuena.

A posteriori, urteak igaro ondoren, egindako irakurketak dira horiek, artean ez baikinena kontziente, nolatan bada, Fermin eta Iñigo Muguruzak eta Kaki Arkarazok sortutako taldeak, eta bereziki lehen disko homonimoak, gure belaunaldiko askorengan luzaroan utziko zuen arrastoaz. Ondorengo urteetan disko osoagoak, biribilagoak eta sendoagoak kaleratuko zituen taldeak –*Gure jarrera*, *Borreroak baditu milaka aurpegi*–, baina lehen diskoak eragindako astindua eta zirrara ahaztezina da.

30 urte geroago, Elkar diskoetxeak 180 gramoko binilo formatuan berrargitaratu du *Negu Gorriak* lehen diskoa, Elkar binilo bildumaren barruan. Argitalpen berriak jatorrizko formatua errespetatzen du –egunkaria itxurako liburuxka barruan– eta Mikel Laboaren omenezko *Txe-rokee* diskoan jasotako *Gaberako aterbea* abestia ere biltzen du –kantu hori CD argitalpenean bakarrik sartu zen extra moduan–. Hanka bat rapean jarrita –*Radio Rahim* lehen singlea, *Spike Leeren Do the right thing* filmean oinarritutako bideoklip gogoangarria tarteko; *Bertso Hop* berritzailea; edota *Esan ozenki* ahalduztze abestia...– eta bestea hardcorean –*Amodiozko kanta*, *Napartheid*, *Irakatsitako historia*, *Malkoak*... zein baino zein indartsuagoa–, euskal musika eszenak hurrengo

urteetan, Esan Ozenki diskoetxearen bidez batez ere, izango zuen mutazioaren atea parez pare ireki zuen hirukoteak lan inizatiko honetan.

Negu Gorriak egin eta gero, bakarkako bideari ekin zion Fermin Muguruzak *Brigadistak Sound System* disko bikainarekin –tartean *Ireki ateak* grabatu zuen Dut taldearekin–, eta hura aurkezteko osatutako taldearekin osatu zuen *FM 99.00 Dub Manifest* bigarren diskoa. Or-

durako reggae musikan guztiz murgilduta zegoen Muguruzak eta doinu bero horiek dira lanaren ardatza. Hemen ere Muguruzaren ibilbideko kantu ezagunenetako batzuk aurkituko ditugu –*Dub Manifest*, *Ekhi Eder*, *Bere-bar*, *Big Beñat*...–, baita, besteak beste, *Eneko Abrego*, *Anari* eta *Selektah Kolektiboaren* kolaborazioak ere. Gridalo Forte zigiluak kaleratu zuen diskoaren biniloko edizioa 2000. urtean eta orain Elkar diskoetxeak Elkar binilo bildumara gehitu du, binilo bikoitzeko formatuan eta hiru erremix gehituta: *Big Beñat* abestiaren gainean Xabi Peryk eta Javi Pezek egindakoak, eta *Rude* italiarrak *Dub Manifest* abestiarekin egindakoa.

Bi lan hauekin 28 dira 2010ean abiatutako Elkar 180 gramoko binilo bilduma osatzen duten diskoak. Ekimen horri esker aukera dugu Kortatu, Hertzainak, Ruper Ordorika, Mak, La Polla, Kuraia, Barricada, Cicatriz, Dut, Anestesia eta beste askoren hainbat disko esanguratsu berriz entzuteko binilozko edizio zaindu eta berrituan.

JON ESKISABEL
Kazetaria



GEHIAGO JAKIN NAHI? ¿QUIERES SABER MÁS?



VALERIUM TREMENS, BAINA ZERTAN ZABILTZA NESKA?

Hondartzan modu misteriosuan hildako gorpu bat azaldu denetik, herriko marinel zaharrek itsasoko izaki ahaztuei buruzko kondairak baino ez dituzte ahoan. Traganarruak itzuli ote dira? Egia ote da olagarro erraldoi baten itxura duen Kraken piztia itzela ezkutatzan dutela kostaldeko natur parkean, Azken Portuko harraldeko haitzulo sakonetan?

Eskolan ordea, neska amerikar etorri berria da denen hizketagai nagusia: Valerium Tremens. Familiarekin batera herrira iritsi eta erlaitzeko etxean bizitzen jarri orduko era guztietako zurrumurruek zabaldu dira haiei buruz. Multimillioarioak ote diren, zenbat animalia exotiko ekarri dituzten beraiekin, Trumpen senitaratekoak ote diren... Baina, benetan, nor arraio da Valerium Tremens?

Hasteko, berez ez du Valerium Tremens izena, Valerie Tremers baizik, eta, nolabait deskribatzekotan, zera esan beharko litzateke: espero ez bezalako neska dela. Inork gutxik espero zuen itxura du –ez da ez ilehoria, ez begi urdinekoa ez eta altuera handikoa ere– eta, batez ere, ustekabeko gauzak egin eta esaten ditu. Imajinario asko eta lotsa gutxi duelako gertatzen da hori eta ezereen beldur ez delako –ezta kondaira zaharretako munstroena ere–. Berehala, “arrarotxo” titulua irabaziko du eskolan eta ezizen berria ipiniko diote: Valerium Tremens.

Lagun berriak egitea nahi baino gehiago kostako zaio horregatik. Izatez, gelako ikaskide guztiak gonbidatu arren, bi pertsona baino ez dira azalduko bere gurasoek hondartzan antolaturiko Valerieren urtebetetze festara: Sara, gelako neska beti-perfektu-super-panpoxa eta Martin, hain zuzen ere Sararen atzetik txora-txora egin da dabilelako.

Hala eta guztiz ere, Sara, Martin eta hirurak altxorren bila jolasean Azken Portuan barneratzen direnean, aurreikusi ezinako abentura batean murgilduko dira betebeteen. Traganarruei ihesi, arriskuan ikusiko dute euren burua, ustekabeko sekretuak topatuko dituzte eta baita agian bizitzan eskura daitekeen altxorrik handiena ere: benetako laguntasuna.

Hori eta askoz gehiago beharko dute bigarren liburuan, Soto Dokorea bere eguneroko sekretuaren bila etorriko denean. Eta, gainera, ez dago bakarrik: inguruko basoetatik zaldiz trostan dator Ehzitari Beltza eta bere Gudaroste Madarikatua.



Valerium Tremens eta bere lagunak arrisku guzti hauetatik onik aterako diren ala ez, ez dizuegu hemen esango; hori jakiteko Valerium Tremens saileko lehen bi liburuak irakurri beharko dituzue. Horren trukean, abentura hauen atzean dauden ezkutuko hiru pertsonaien identitate sekretuak txibatuko dizkizuegu:



VALERIUM TREMENS ETA TRAGANARRUAK

Martin eta Xabier Etxeberria
ELKAR

Iñaki Holgado marrazkilaria. Gizotsoekin paseatzen du gauerdian, lubakietan sartuta borrokatzen du edota ametsak alokatzeko makinak asmatzen ditu, eta hori guztia, aulkitik altxatu gabe: magiazko munduak sortzeko balio dion arkatx soil baten laguntzarekin.

Martin eta Xabier Etxeberria idazleak. Mapak dauzkaten liburuak maite dituzte, sagar tarta egin berrien usaina, kondairazko munstroak eta etxe azpitik doazen tunel sekretuak. Hori guztia izango zuen istorio bat egitea bururatu zitzaizkien eta, bueltan bueltan, horrelaxe sortu zen Valerium Tremens.



MARTIN ETA XABIER ETXEBERRIA
Idazleak

PIKOTXEAN JARRI ETA GOZATZEKO SAILA

Pikotxean deituriko sail berria jarri du martxan Ereinek, 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek zuzendua. Lehen lau liburuxkak kalean dira jada. Anjel Lertxundik eta Inazio Mujikak idatzi dituzte ipuinak, eta Antton Olariaga eta Maite Gurrutxaga arduratu dira marrazkiez.

Orkatilen gainean eserita egotea da pikotxean egotea. Kororiko ere esaten diote batzuek. Bada, hor nonbait galdutako hitza berreskuratu, eta 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoentzat sail berria jarri du martxan Erein argitaletxeak. Saileko lau liburuxka kalean dira jada, horietako bi sortu ditu Inazio Mujikak. "Tentsio pixka bat eta kontzentrazioa eskatzen duten liburuxkak dira, pikotxean irakurtzekoak", azaldu du. "Ez luzeak, ez laburrak". Hitz-joko horretatik datorkio izena, beraz, sail berriari.

Gainerako bi liburuxkak Anjel Lertxundik idatzi ditu. "Nik banituen ipuin liburu batzuk Ereinen, baina 1997ko uholdeak eraman zituenak. Haietako ipuin batzuk erreskatatu, berritu, gaurkotu eta argitaratzea proposatu zidaten". Zehazki, *Gizon kabalen piurak* [Erein, 2000] liburutik berreskuratu ditu ipuinak, Lertxundik: *Zakarruko* eta *Donostian elefanteak ikusi zirenekoa*. Aurretik idatzitakoa traizionatu gabe, gorputz gehiago eman, eta karga literario jantzia erantsi diela dio. Emaitza, ironiaz beteriko bi testu, kritikoak hainbat jokalabide eta izaera-klase-rekin eta, aldi berean, pikardia dosi zehatzekoak.

jendetzaren zentzuarekin. "Haurrei beldurra ematen dien zerbait izan ohi da jendetza, festetan-eta ikus dezakegu, eta horregatik landu nahi izan dut gaia". Europako iparraldetik etorri da Hans protagonista. Kaleko artista da, eta haren igel lagunarekin biziko dituen abenturak kontatzen ditu *Hans eta igelak*. *Ez apuratu* liburuan, berriz, amona baten eta haren ilobaren arteko istorioa ezagutuko dugu. Bien arteko harremanaz, memoria galtzeaz, hizkuntza beraren moldaeraz belaunaldiz-belaunaldi...



Zakarruko liburuan, esaterako, ustez petrala den pertsonaia da protagonista: Zakarruko bera. Petralduta bizi da bere buruarekin eta munduarekin. Orrialdeek aurrera egin ahala ikusiko dugu hala ote den benetan. *Donostian elefanteak ikusi zirenekoa* ipuina, berriz, distopia bat da, bertan bizi direnak elefanteak dira eta alkatea da enteratzen ez den bakarra.

Anjel Lertxundiren istorioak iruditara Antton Olariagak eraman ditu, eta Inazio Mujikarenak Maite Gurrutxagak. Ilustratzaileek beren istorioak kontatzen dituzte marrazkiz marrazki, eta denak daude pozik emaitzarekin. "Luxu totala" izan dela diote, bi idazleek, halako marrazkilari "handiekin" lan egitea.

Datorren urtean, *Pikotxean* saileko beste lau liburuxka argitaratzea da Erein argitaletxearen asmoa, gaztetxoek giharrak indartzen jarrai dezaten. Ordura arte, nahikoa abentura badute bizitzeko hainbeste animalia, senide, artista eta lagunaren artean. Lertxundik dioten bezala, "irakurketa delako egon litekeen bidaia irakurketa merkeena eta etekintsuena".

Inazio Mujikak idatzi ditu *Hans eta igelak* eta *Ez apuratu*. Biak daude lotuta

ANA ABARISKETA
Kazetaria



BAT

BULLYNG-AREN AURKAKO TALDEA

BAT taldeak ikur hau du bereizgarri , eta bullyingari aurre egitea, bullyinga jasaten ari direnei laguntzea eta ondo pasatzea dute helburu. Beren istorioak ezagutzera emateko bi liburu eman ditugu argitaratuta: *BAT, Bullying-aren Aurkako Taldea* eta *BAT ziberbullying-aren aurka*. Alex Hallatt Zeelanda Berriko idazle eta ilustratzaileak sortuak dira eta Itziar Olaizola, Eneko Haritza Garaialde eta Danele Sarriugartek itzuli dituzte hurrenez hurren. Hirugarren istorioa ere prestatzen ari gara: Partida handia.

BAT taldeko kideak:

Ruth Wilkinson:

Ruthek gustuko du BAT taldearekin egotea, zuhaitzetan gora igotzea eta bizikletan ibiltzea; edo, bestela, marrazkiak egitea.



Nancy Wong:

Nancyri bost axola zaio besteek irakaslearen kuttuna dela esatea: gustuko du ikastea, eta, bereziki, informatika ikastea.



Toby Wilson:

Tobyri zirika aritzen zaizkio txikia eta lotsatia delako. Nahiago luke etxean egon, bere Legoarekin eraikin zoragarriak egiten.



Jake Blake:

Jakek bere estiloa du, eta berdin zaio modan zer dagoen edo besteek zer esango duten.




Ravi Gupta:

Ravik irakurtzea maite du, eta eskolan gogor lan egiten du. Nancy ez bezala, atentziorik ez ematen saiatzen da.



Liburuaren amaieran bullyingaren inguruko hainbat aholku emango zaizkio irakurleari, baldin eta bullyinga jasaten ari bada, ziberbullyinga egiten ari bazaizkio sarean edo telefonoan, edota beste bati bullyinga egiten ari zaizkiola ikusiz gero.



BAT
BULLYNG-AREN AURKAKO TALDEA
Alex Hallatt
ELKAR

ANIMALIEN GAUA


EZAGUTZA LIBURU dotore bat...

etxean, bakarka irakurtzeko eta irudiekin gozatzeko, eskolan, naturaren zientzietako klasean erabiltzeko, naturan, animaliei buruz gehiago jakiteko, nonahi, lagunekin edo familiarekin konpartitzeko, ALBUM eder bat...


Lo gaudenean, gaueko animaliak baso eta zelaietara irteten dira. Landare artean lerratzen dira gaueko tximeletak, saguzarrak, azkonarrak, azeriak eta lursaguak. Hontz zuria kanpandorreko habiara abiatu da, zain baititu txita gosetuak. Gau osoan zehar, animalia guztiek helburu bera dute: jateko zerbit aurkitzea.



ANIMALIEN GAUA
René Mettler
TTARTALO



Amesgaiztoak ez dira inoren gustuko. Baina amesgaizt horiek ipuin ederrak bilakatuko dira zure pelutxea eskura eduki ezker.



A zer ilar-saltsa! Nahaspila hau txukuntzea ez da lan makala! Ordenatu ilarak batetik seira eta lortu ilar-tantoak!



Es el UNO que amas, pero esta versión incluye una Mario Super Star Card especial que hace que tu personaje sea invencible. Fácil de levantar, imposible de dejar.



Munstroen sabelen zaratak eta ahotik darien adurrak argi esaten dizute ez daukazula denborarik ia. Afaria noiz etorriko zain daude!



JEFF EL GRUMETE, BOB EL EXPLORADOR Y JESSIE THE TOURIST

Pack de tres divertidos juegos en los que resolveremos problemas matemáticos y repasaremos nuestros conocimientos de idiomas.



¿Qué proporción de color rojo hay en esta carta? ¿Serás capaz de colocarlas en el orden correcto? Un original juego del creador de The Mind que te sorprenderá...




THE KEY. ASESINATO EN EL CLUB DE GOLF

Una terrible serie de asesinatos ha conmocionado a los socios del Club de Golf, donde han aparecido muertas tres personas. Los jugadores se hacen cargo de la investigación.




+2



PINTTO ETA HIP HOPA
Magali Le Huche
TTARTTALO

Bronxeko espaloietan Pintto breakdance dantzariak aurkituko ditu akrobazia izugarriak egiten. Haiekin batera, hip hoparen unibertsoa ezagutuko du. Hori martxa, hori! Sakatu ikonoaren gainean, eta entzun hip hoparen doinuak.

+3



ILUNTASUNEAN
Natalie Marshall
IBAZABAL

Ezagutu iluntasunean bizi diren animaliak, zer egiten duten, nola bizi diren eta haien arteko harremanak, liburuaren hegala zabalduz.


+6



ZER IKUSTEN DUZU? HITZEZ ETA IRUDIZ BETETAKO LIBURU BAT
Anita Bijsterbosch
TTARTTALO

Begiratu arretaz zure ingurura... Zer ikusten duzu etxean? Zer dago logelan, bainugelan, sukaldean eta egongelan? Eta kanpoan? Hitzak ikastea oso dibertigarria da irudi ezaguterrazez hornitutako liburu honekin.

+6



LA SINFONÍA DE LOS ANIMALES
Dan Brown
DESTINO

Experiencia de lectura infantil única en la que el juguetero Maestro Mouse nos acompaña en las aventuras de un grupo de amigos, desde guepardos y canguros hasta elefantes y ballenas azules.



TARTA GOXOA
Christian Voltz
KALANDRAKA/
PAMIELA

Nireak egin du! Zuriñe andereñoa gonbidatu dut merendatzera... Bada ordubate tarta on bat prestatzen hasi naizela... Baina dena desastre hutsa da!



BEGIRADAZALEA
Marina Núñez
KALANDRAKA/
PAMIELA

Gaur Aitana kementsu jaiki da, behingoz konpibidea aurkitzeko prest. Aspalditik dago kezkatuta, eta gaur goizean, azkenean, begiradak harrapatzera itertea erabaki du.

+8



LA BANDA DE LOS CALCETINES PIRATAS
Justyna Bednarek
DUOMO

A menudo me preguntáis por qué los calcetines siempre viven sus aventuras solos. ¿Es que no tienen amigos? ¿No se enamoran? Y, ya puestos, ¿por qué siempre calcetines? En este libro, doy respuesta a todas estas preguntas.



ROWLEY JEFFERSON SUPERJATORRAREN ABENTURA
Jeff Kinney
ALBERDANIA

Elkar zaitez Rolandekin, eta Garg Basatiarekin, haren lagun onena, euren herriko segurtasuna utzi eta Rolanden ama Azti Zuriaren atzaparretatik salbatzeko ontziratzen direnean.



BI FAMILIA XATURRENTZAT
Beatriz Yubero
EREIN

Untxi jaun-andreekin bizi da Xatur, ekaitz gogor batek bere gurasoekin bizi zen etxea suntsitu zuelako. Nola uste duzu biziko dela familia berriarekin?



VALERIUM TREMENS ETA EHIZTARI BELTZA
Martin eta Xabier Etxeberria
ELKAR

Traganarruen abenturaren ostean, Valerium Tremens, Sara eta Martin elkarrengandik urrutiratu dira. Inauterietan elkarrekin moztarotuta, Valeriek gauzak konponduko direla espero du, baina heldu berri batek dena zailduko du.

¡UN LIBRO ALMOHADA OSITO PARA DORMIR TRANQUILO!

Estimula la imaginación y las habilidades sensoriales de tu bebé con este libro suave al tacto.

www.edebe.com

edebé

Síguenos en:

+8



BAT. BULLYING-AREN AURKAKO TALDEA
Alex Hallatt
ELKAR

Toby, Ruth, Ravi eta Jakek BAT taldea osatzen dutenean, euren bizitzak hobetu egiten dira jazarpena gelditu ahal. Baina harroputzek taldea txikitzeko asmoa dute. Nancy bakarrik du defendatzeko modu bat.




ZAKARRUKO
Anjel Lertxundi
EREIN

Inork ez du bere izenik gogoratzen, Zakarruko deitzen diote denek. Harroa omen da, egoskorra, beti kopetilun dago: petralduta bizi da bere buruarekin eta munduarekin. Baina benetan ote da hain pertsona zakarra?



GIZAJO BATEN EGUNKARIA 12. IHE SALTIA
Jeff Kinney
ALBERDANIA

Heffleytarrek, hotzetik eta Gabonetako tirabiretatik aldendu nahian, ihesaldia egin dute uharte tropikal batera, atsedendaldi bila. Ikaragarri ongi etorriko zaie egun batzuk ametsetako parajeen ematea!



AMAREN BULARRETAKOA
Edméé Pardo Murray
BELLATERRA

Haztea zoragarria da. Baina hazteak, ezinbestean, ardura berriak hartu beharra dakar. Liburu honetan neskek ikusi eta ikasi dezakete zeinen inportantea den beren gorputza zaintzea, eraldatze prozesu betean daudelarik.

+10




LA EXTRAORDINARIA FAMILIA APPENZEL
Sébastien Perez
EDELVIVES

Victoria Appenzell, de doce años, a través de su álbum de fotos nos relata la historia de su familia. Comienza con su abuela Eugenia, a la que la sociedad calificó como «monstruo» cuando le crecieron cuernos.



LOS FORASTEROS DEL TIEMPO 10. LA AVENTURA DE LOS BALBUENA CON LOS SUPER-NINJAS
Roberto Santiago
SM

Los Balbuena y sus vecinas acaban de aterrizar en Japón, en 1570, y están a punto de vivir una aventura que solo conocían por los videojuegos, una aventura con ninjas de carne y hueso: los míticos Super Ninjas.



ATLAS DE HISTORIA
Thiago de Moraes
HARPERKIDS

Los mapas del Atlas de historia están repletos de personajes de quince civilizaciones extraordinarias. Encontraréis emperadores y exploradores, inventores, piratas y astronautas, incluso aparecen Cleopatra y Stephen Hawking.



MENDIKO ERREGEA
Judith Rossell
IBAIZABAL

Stellaren izebek barnetegi ilun batera bidali dute iloba. Bertan, izaera menderakaitz eta egoskorrenak ere arrastoen sartzen dituzte. Baina lagun berrietako bat era misteriotsuan desagertzen denean, Stella ez da besoak gurutzatuta geratu.

+12



PORTUAK
Oihana Arana
GAUMIN

Noiz uzten diogu haur izateari? Noiz egiten gara heldu? Nerabetasunaren galdera ikur handiei erantzun txikiak ematera dator Ilargiren nerabezaroaren argazki panoramikoa den *Portuak* eleberria.



¿A QUE NO LO SABÍAS?
Varios
NATIONAL GEOGRAPHIC

Un libro cargado de datos y curiosidades para asombrar a todo el mundo. Desde sabrosas curiosidades sobre el helado, pasando por interesantes hechos históricos, hasta sorprendentes anécdotas acerca de los perros.



EL CHICO DE LA ÚLTIMA FILA
Onjali Q. Raúf
LA GALERA

Ahmet acaba de llegar al colegio y no puede comunicarse con nadie. Después de regalarle muchos caramelos, él y yo nos hemos hecho muy amigos. Me ha contado que viene de Siria y que sus padres se han quedado atrás.



INKAREN BEGIA
Natalia Alonso
IBAIZABAL

Milaka urteko zibilizazio bat ikertzen ari den antropologo baten bahiketa eta seme-alabek abiatutako bilaketa. Boliviako bazter ederretan eta ezkutuenetan gertatzen den egiazko abentura bizia.

LA AVENTURA TE ESPERA

EL NUEVO LIBRO DE ROWLEY

El Mundo de DIARIO de Greg

Como no lo habías visto hasta ahora

Con la ayuda de GREG HEFFLEY

ROWLEY presenta UNA AVENTURA SUPERGUAY

YA A LA VENTA

RBA

TM and © 2020, Wimpy Kid, Inc.

NOBEDADEAK

liburuak



MINOTAURO
Txomin Peillen
ALBERDANIA

Bere hamargarren eleberrian literaturara gutxi-tan iristen diren bi gai jorratu ditu Peillenek: pedofilia eta intzestua. Ele zahar kutsuko historia bat harilkatu du, XVI. mendeko Euskal Herrian gertatutako intzestu baten inguruan.



BAHIKETA
Asel Luzarraga
TXALAPARTA

Buenos Airesko *La Hoz* egunkarian luzetsita dau-de, Matxinen artikulua iristen ez delako. Ez artikulua, ez Matxin bera. Haren inguruko berriak ez dagoela jabetzeaz, alarmak piztu zaizkio Eduri, lagun mina baitu.



ORRATZA ETA KALTEA
Joanes Urkixo
ELKAR

Heroina-trafikoa 1980ko hamarkadan Ondarroan, erritmo bizian kontatutako thriller bat, tirotan lehertzen den amaiera apoteosikora iritsi arte.



NESKAMEAREN IPUINA
Margaret Atwood
TXALAPARTA

Freden neskamea da Gileadeko Errepublikan. Komandantearen eta haren emaztearen etxetik egunean behin ateratzen da elikagaiak erostera, errotulueta hitzak ez baizik eta irudiak dituzten saltokietara, emakumeek debekaturik baitute irakurtzea.



NIK KANTATU ETA DANTZA EGITEN DU MUNDUAK
Irene Solà
ALBERDANIA

Europar Batasuneko Literatura Saria 2020. Eleberri indartsua, emakume ahots teluriko batek kontatua, kontatzearen atseginarekin atseginez.



EHUN METRO
Ramon Saizarbitoria
EREIN

Franco diktadorea 1975ean hil zen, baina 1976an nobela honek argia ikusi zuenean edizioa bahitu eta egilea epaitu zuten. Nobela hunkigarria gertatu zen orduan, eta gaur egun ere berdin hunkitzen gaitu.



URRUTIKO ESTANPETAN
Amaia Iturbide
BETA

Urrutiko estantpetan izeneko narrazio liburua, batetik, giro irreal eta fikziozkoan murgiltzen da maiz eta, bestetik, batez ere mundu artistikoan ezaguna den "estampa" hitz polisemikoari eusten dio.



OROIMINEZKO IGANDEAK
Ainara Maia
DAKIT

Hemeretzi urteko neska baten bizipena da. Lehen aldiz ateratzen da etxetik. Alemana ikasteko ikasturte osoa egingo du Alemanian, Euskal Herriko urrun. Harako bidaian Euskal Herriko bost neska ezagutuko ditu.



NATURA BERRIAK
Jon Gerediaga
PAMIELA

Liburu honekin "Xabier Lete V. Poesia Saria" irabazi du Jon Gerediaga. Gai nagusia naturaren elementuen sorrera eta iraupenari buruzko gogoeta poetiko-filosofiko bat da.



FORUGH FARROKHZAD
Forugh Farrokhzad
SUSA

Forugh Farrokhzad Irango XX. mende erdialdeko berpizkunde kulturalaren ama pontekoetako bat, eta bertako poesia modernoaren erreferentziatzat hartzen da. Munduko poesia kaierak bildumako ale hau Miren Agur Meabek euskaratu du.

ezta bada



COVIDAREN ONDOREN ZER?

GOGOETA BAT EUSKAL HERRITIK

COVID-19 osteko etorkizunari aurre egiteko beharrezko dugun herri elkarrizketa zabal, ireki eta sakonari ekarpena.

TM eLab Euskal Herrigintza Laborategia

elkar www.elkargitaletxea.eus



ISILTASUNAZ HUNATAGO
Jose Angel Irigaray
PAMIELA

Olerki liburu berriari hitzendatzearen mentura jarri dio azpititulu Irigarayk. Hitz da daukazu bakararra: arrazoimenaren euskarri, bestearekiko zubi, ardatz sormen-bidean, aterbe, lubaki, iski-lu askatasunaren aldeko lehian.



SUAK PIZTEN DIRENEAN
Mikel Soto
ELKAR

Kontzientzia politikoaren iratzartzea, borroka-urteak, atxiloketa, tortura eta kartzelaren esperientzia, pasioz bezainbateko zintotasunaz idatzitako poema-liburuan.



EROS
Eric Dicharry
PAMIELA

Poetaren hitzek tximisten gisan distiratzten gaituzte. Maiz iluna den mundu itsuan, bidea argitzen digute. Dicharryren poesien oihartzun gisa Leire Bilbaoren hitz hauek zaizkigu heltzen gogora: "Zuk zerorrek zenioetan hiltzea baino laztagoa dela ez jakitea zertarako bizi garen".



SANO ERRADIKAL
Isa Diaz
ALBERDANIA

Emakumezkotasuna erabatekotasunez bizitzeko aukera egin duen poeta baten kantua. Kantu amultsua aieraturaz inoiz, garrasi sarkor ere bihurtzen dakien kantu errebeldea, erradikala, sanoa, egia. Ezinbestekoa.




DORTOKAREN PROMESA
Stephane Piatzsek
HARRIET

Dortoka uhartera deportatutako hiru emakume adiskidetasun-hitzarmen batera iristen dira elkarri laguntzeko eta kosta ahala kosta bizirauteko. Hala ere, bere bideak eta asmoak laster desbideratuko dira.



ZAHARKITZE PROGRAMATUA
Eva Perez-Pons
EREIN

Zaurgarritasunak ekartzen dituen kontraesane-kin egingo du topo irakurleak poesia bilduma honen bertso lerroetako askotan. Blas de Otero-Bilbo Uria nazioarteko poesia saria.



ISILTASUNA
Eneritz Artetxe Aranaz /
Dxusturi teatroa
SUSA

Eneritz Artetxe Aranazen bi antzezian dakartzat liburu honek: antzeztu gabeko *Isiltasuna*, eta egileak berak Dxusturi bere konpainiarekin taularatutako *Karramarroa*. Elkartasuna, politika eta umore zorrotza.



COVIDAREN ONDOREN ZER? GOGOETA BAT EUSKAL HERRITIK
TM eLab Euskal
Herrigintza Laborategia
ELKAR

Covid-19aren ondorengo mundua ez da berdina izango eta kudeatu beharreko ondorioak nabariak izan arren ez dira neurgarriak oraindik, ez Euskal Herri mailan, ez mundu mailan.



KUTSALDIAN
Paolo Giordano
EREIN

Koronabirusaren pandemia gure garaiko osasun-larrialdirik garrantzitsuen bihurtzeko bidean da. Bizi garen mundua izugarri konplexua dela erakusten digu, baita haren dinamika sozial eta politikoak ere.



BIDASOAN GORA
Eneko Aizpurua
ELKAR

Urak egiten duen ibiliaren kontra, ibaian gora abiatu da Eneko Aizpurua: Txingudiko badiako paduretan hasi eta Xorroxingo iturrian amaitu arte, bazterrik bazter ibiliko ditu Bidasoko urak eta lurak, paisaiari eta pasaiaiei beha.



LEITZAKO BORDAK, SORRERAN (1557-1965)
Patziku Perurena
PAMIELA

Liburu honek, Leitzako bordak (baserriak) noiz eta nola sortu ziren erakutsi nahi ditu. Ikerlanak hori ditu datat, nahiz horren aitzakian beste datu osagarri asko txertatu egileak, ohiko duen estiloan.



TOMAS ZUMALAKARREGI ETA BERE GARAIA
Batzuk
NABARRALDE

Tomas Zumalakarregi, gure figura historiko nagusietako bat da, errelato ofizialaren hegemoniari ihes egitea lortu duen gutxienetako bat hain zuzen ere. Hala izan da, behintzat, herriaren iruditerian.



«Una guerra civil no es la lucha del bien contra el mal...
Sólo el horror enfrentado a otro horror.»

LÍNEA DE FUEGO
LA NUEVA NOVELA DE ARTURO PÉREZ-REVERTE

A la venta el 06/10/2020

ALFAGUARA

Penguin
Random House
Grupo Editorial

www.alfaguara.com



NOVEDADES

libros



PORQUE EMPIEZA CADA DÍA
Ramon Saizarbitoria
EREIN

Esta obra marcó un hito en la literatura vasca; nada parecido se había publicado antes de 1969. Hoy, por primera vez, se publica la traducción al español de aquella deslumbrante novela.




EL ALFÉREZ DEL ESTANDARTE REAL
Begonia Pro
TXERTO A

Novela repleta de aventuras, intrigas, amores – unas veces más caballerescos que otras – y sentimientos, que la autora engarza perfectamente con el asombroso conocimiento de la historia medieval que la caracteriza.



LA BUENA SUERTE
Rosa Montero
ALFAGUARA

¿Qué impulsa a un hombre a bajarse anticipadamente de un tren y ocultarse en un pueblo de mala muerte? ¿Quiere recomenzar su vida o pretende acabar con ella?



EL ESPEJO DE NUESTRAS PENAS (HIJOS DEL DESASTRE 3)
Pierre Lemaitre
SALAMANDRA

Secretos de familia, personajes colosales, giros inesperados, tragedia y vodevil en una narración poderosa, cierre magistral a la incursión de Lemaitre en la Francia de entreguerras.



UN AMOR
Sara Mesa
ANAGRAMA

Ambiciosa, sólida, arriesgada: vuelve Sara Mesa con una novela en la que las pulsiones más insospechadas de sus protagonistas van emergiendo mientras la comunidad construye su chivo expiatorio.



EL CAMINO DEL ARQUERO
Paulo Coelho
PLANETA

Tetsuya, el mejor arquero del país, vive retirado en un valle remoto y trabaja de carpintero. Un día, otro arquero le desafía. Tetsuya le muestra que para vencer, tanto con el arco como en la vida, no basta la habilidad técnica.



EL ARTE DEL CRIMEN
Philip Kerr
RBA

Este sorprendente thriller con una atmósfera angustiosa digna del mejor Hitchcock, también es una ácida y maliciosa crítica al mundo editorial más materialista.



EL VIAJE DE LA LIBÉLULA
Marta García Pons
MAEVA

La historiadora Marta García Pons regresa con una novela protagonizada por dos orfebres de la reputada saga de los Amat que intentan abrirse camino en el oficio separadas por varias décadas.



EL BOSQUE DE LOS CUATRO VIENTOS
María Oruña
DESTINO

A comienzos del siglo XIX, el doctor Vallejo viaja de Valladolid a Galicia con su hija Marina para servir como médico en un monasterio. Allí descubrirán unas costumbres muy particulares y vivirán la caída de la Iglesia.



HOMBRES EN MI SITUACIÓN
Per Petterson
ASTEROIDE

Arvid Jansen lleva una vida solitaria y sin ambiciones. En noches de insomnio, recorre sin rumbo la ciudad de Oslo en coche o va de bar en bar, buscando refugio en el alcohol y en la compañía de alguna chica.



LA NUEVA GRAN NOVELA DE LA AUTORA QUE MÁS INTRIGA AL MUNDO, CON 30 MILLONES DE LECTORES

«Lloré leyendo sus libros.» JONATHAN FRANZEN

«Ferrante logra una hazaña imposible para quienes pasaron noches en vela por las vidas de Lila y Lenù: desde las primeras líneas de esta novela solo queda Giovanna.»

LUCIA ESPOSITO, LIBERO

Lumen

Penguin
Random House
Grupo Editorial

www.megustaleer.com





**YA NO NECESITO
SER REAL**
Flavia Company
CATEDRAL

Ya no necesito ser real es el libro de Haru y es una vuelta al mundo. Es una historia que trata del hilo que nos une a todas y a todos, entre nosotros y con la vida. Flavia Company culmina el proyecto que inició con Haru.



**LA VIDA CONTADA
POR UN SAPIENS A
UN NEANDERTAL**
Juan José Millás /
Juan Luis Arsuaga
ALFAGUARA

La sabiduría del paleontólogo se combina en este libro con el ingenio y la mirada personal y sorprendente del escritor sobre la realidad. Porque Millás es un neandertal (o eso dice), y Arsuaga, a sus ojos, un sapiens.



**LAS ALMAS DEL
PUEBLO NEGRO**
W.E.B. du Bois
CAPITÁN SWING

Originalmente publicado en 1903, este es un estudio clásico de raza, cultura y educación a principios del siglo XX. Du Bois partió de sus propias experiencias como afroamericano en la sociedad estadounidense.



**TRATADO DE
[H]ORTOGRAFÍA**
Patxi Irurzun
PAMIELA

Patxi Irurzun ha escrito la novela del Rock Radikal Vasco, y lo ha hecho como quien no quiere la cosa, con una gran historia pequeña, que es la historia de todos nosotros.



ROJOS
Mikel Huarte Alzueta
TXALAPARTA

En 1936 la represión se cebó con Osasuna, en forma de fusilamientos, exilio o cárcel. La larga noche franquista, que llega hasta nuestros tiempos, borró, junto a sus vidas y destinos, los orígenes humildes y vasquistas del club.



**LA TORRE
MALDITA. LA
ÚLTIMA BATALLA
DE LOS CRUZADOS
POR TIERRA
SANTA**
Roger Crowley
ÁTICO

El asedio de Acre (1291) fue la batalla final por Tierra Santa. Gracias a su dominio de las fuentes árabes y de documentos latinos, Crowley afirma que fue un hito por los avances tecnológicos y por el derroche de crueldad.




**EL PROCESO
DE BURGOS**
Iñaki Egaña
TXERTO A

En diciembre de 1970, dieciséis jóvenes fueron sometidos a consejo de guerra acusados de formar el núcleo dirigente de ETA y de la muerte de Melitón Manzanas. Medio siglo después, este libro repasa los hechos.



**ZALDIBAR.
ZONA CERO**
Ahoztar Zelaia
TXALAPARTA

Espleado por la muerte de los dos trabajadores en Zaldibar, el periodista Ahoztar Zelaia se calza las botas para investigar in situ lo ocurrido y tratar de desentrañar los porqués de la catástrofe.



**AIR.
LA HISTORIA DE
MICHAEL JORDAN**
David Halberstam
DUOMO

Historia fascinante sobre el mítico último año de Jordan en los Chicago Bulls, el equipo que cambió el juego para siempre. La biografía definitiva de la leyenda del baloncesto que protagoniza la serie *El último baile*.



**BREVES DEL
DESCONCIERTO
(2018-2020)**
Miguel Sánchez Ostiz
PAMIELA

¿De qué virus quiere que hablemos hoy? ¿O prefiere que lo hagamos del angelical futuro que nos espera? Se lo pregunto porque si la normalidad va a ser vivir con hostilidad y recelo, estamos igual o peor que antes.



**CUANDO TU JEFE
ES UNA APP**
Sarah Abdelnour /
Dominique Média
KATAKRAK

Basado en encuestas a conductores, repartidores o chefs a domicilio, este libro descubre el retorno del trabajo a destajo, al tiempo que analiza las resistencias y las regulaciones de estas nuevas actividades.



**PROGRAMADOS
PARA CREAR**
Marcus du Sautoy
ACANTILADO

Marcus du Sautoy explora los últimos avances de la inteligencia artificial y ofrece una visión optimista e innovadora de nuestra relación con las máquinas, que obligará a reconsiderar la esencia de la creatividad humana.



En la Galicia de 1830,
una mujer se enfrenta
a las convenciones de su tiempo.

Por la autora de *Puerto escondido*
MÁS DE 200.000 LECTORES



TESTU2020 LIBURUAK



elkar LIBURU-DENDAN
ZURE TESTULIBURUA
ERRESERBATZEAN
PAPERTEGIAN %10eko
DESKONTUA IZANGO DUZU

RESERVA LOS LIBROS
DE TEXTO EN TU LIBRERÍA
elkar Y OBTENDRÁS UN
10 % DE **DESCUENTO**
EN PAPELERÍA

**Etiket edo liburu-dendan eskuratu
ikasturte berrirako behar duzun guztia**
Elige la opción que más te convenga

**Etiket erosi
eta liburu-dendan
edo etxean jaso**

Compra desde casa
y recoge en la librería o
recíbelo en tu domicilio



on-line

elkar.eus

Erosi Compra



**Liburu-dendan erosi eta
etxera bidaliko dizugu**

Compra en la librería
y te lo enviamos a casa



Bertan erosi

elkar

Compra presencial



**Liburu-dendan erosi
segurtasun neurri
guztiekin**

Compra en la librería
con todas las medidas
de seguridad

elkar

www.elkar.eus

*Zure
beharretara
egokitua*